

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

12588 30/2014 Legea, abenduaren 3koa, Parke Nazionalena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau irakurtzen duten guztiek jakin dezaten.

Jakin ezazue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

Parke nazionalaren figura ehun urte betetzear dago gure herrialdean, 1916ko abenduaren 7ko Legeak jada aurreikusi baitzuen aparteko inguru batzuen hautaketa, bai inguru horietako balio naturalak kontserbatzeko, bai gizarteak gozatu eta errespetatu zitzaizkien. Eremu ugarietan aldaketa sakonak izan dituen ia mende bat igaro ostean, figura horren funtsak bere horretan dirau, atxikita dituen bikaintasunari eta sinbolismoari dagokienez; hortxe dira, halaber, aberastasun naturala, gizartearen aitormen orokorra eta balio estetiko, kultural, hezkuntza-balio eta balio zientifiko nabarmenak. Horregatik, ingurune horiek kontserbatzeak lehentasunezko arreta merezi du, bai eta Estatuaren interes orokorraren deklarazioa ere.

Alde horretatik, Estatuak babes-maila gorenaren bidez (Gorte Nagusien lege baten bidez, alegia) izan duen inplikazioa funtsezkoa izan da egun Parke Nazionalen Sarea osatzen duten gune hautatuez gozatu ahal izan dezagun, ordutik denbora igaro den arren.

1916tik aurrera naturagune horien babesa ziurtatzera xedatutako araubide juridikoak hainbat aldaketa izan ditu, gure gizartearen bilakaerarekin eta Estatuaren administrazio-antolaketan egon diren eraldaketekin bat, baina bere horretan eutsi dio adierazitako helburuari; hots, etorkizuneko belaunaldiek legatu natural hori gozatu ahal izatea bermatzeari.

Gune horien funtsa osatzen duten habeetan oinarrituta, lege honek garatu eta eguneratu egiten du Parke Nazionalen Sarearen antolaketan oinarritutako ereduak; hau da, parke nazional deklaraturako guneak, beren oinarritzko arau-esparrua eta funtzionatzeko behar duten harreman-moldeak biltzen dituen sistema. Horretarako, gaituratu egiten du parkeen eta Sarearen arteko loturarik eza eta, daukaten garrantziarekin bat etorritik, lurralde-kontzeptuak, tokiko egoiliarrak eta eskubideen titularrak jasotzen ditu, lurraldean parke nazionalen integrazioa eta onarpena lortzeko beharrezkoa eta funtsezkoa den ikuspegi ekonomikoa aintzat hartuta.

Lege honek ordezkatu egiten du Parke Nazionalen Sarearen apirilaren 3ko 5/2007 Legea, baina haren funtsa aldatu gabe eta haren artikulua batzuk osotasunean jasoz; hori horrela, lege hartan xedatutako autonomia-erkidegoen kudeaketa-eredua eta Sareko koordinazioa eguneratu eta indartu egiten dira, gizarteak figura honi eskatzen dionera egokitzeko: parke nazionalak, egun, natura kontserbatzeko ereduaz gainera, partaidetza handiagoko eta gizarteari irekiagoa dagoen kudeaketaren adibide izan behar dira, elkarlan-, koordinazio- eta lankidetzaren printzipioak ezarriko dituen, eremu konplexu gisa eratzen baitira; eremu horietan, hainbat eragile, bere eskumen eta berezitasunak errespetatuz, parkeetako balioen zainza ziurtatzeko antolatzen dira.

Ikuspegi horretatik, nahitaezkoa da Estatuko Administrazio Orokorra Parke Nazionalen Sarea koordinatzeko duen funtzioa finkatzea, sistema natural esanguratsuenak kontserbatzeko esparru egokia ziurtatzeko, parkeen helburuak betetzen laguntzeko eta herri-administrazioek Sarean bultzatzen dituzten ekintzetan sinergiak lortzeko.

Estatuak gune hauetan duen inplikazioa eta beren berezitasuna dela eta, berariazko araudi espezifikoa ezarri zaie; hain zuzen ere, lege honek, bere garapen-tresnek zein parke bakoitzeko deklarazio-legeek osatzen dute araudia. Hori dela eta, bereizi egiten dira arloko araudiak erregulatutako gainerako naturagune babestuetatik eta berariazko tresnak aitortzen zaizkie kudeaketa, plangintza eta partaidetza sozialerako, bai eta irudi propioa ere, identifikatzen dituen marka bat, merezita lortu duten balio eta aitormen soziala nabarmentzen dituen.

Lege honek berrikusi egiten du deklarazio-prozedura, ekimena Nazioko Gobernuak edo gunea dagoen autonomia-erkidegoak edo autonomia-erkidegoek izan dezaten, eta, baterako proposamenean gauzatzen den ekimen horretan oinarrituta, administrazio biek parte hartzen duten prozedura abiarazten da. Prozedura amaitzeko, Sarearen Kontseiluaren aldeko txostena egiten da lehenengo, eta Gorte Nagusien legearen bidez deklarazioa burutzen da ondoren.

Parke nazionalak erreferente izan behar dira, hala kontserbazioa gauzatzeko moduan, nola kudeatzeko eta gizartea bere jardueretan inplikatzeke moduan. Hain zuzen ere parke nazionalen balioen zaintzan gizartearen inplikazioa ziurtatzeko, patronatuen figura sustatzen da, gizartearentzako elkarguneak izan daitezen; horrela, kudeaketa-jardueretan sektore eta taldeak integratzea eta bertan bizi diren biztanleak inplikatzea eta laguntzea lortu nahi da.

Legeak kontuan hartzen ditu parke nazionaletako eskubideen titularrak ere: parke nazionalaren kontserbazioan bertan txertatzen ditu eta jarduera ekonomikoak edo merkataritza-jarduerak garatzeko ahalmena aitortzen die (bereziki, erabilera publikoarekin edo landa-turismoarekin lotutakoak), bai eta parke nazionalak gizartearen aurrean proiektatzeko xedea duten ekitaldi edo jardueretan presentzia instituzional egokia ere.

Legeak lurralde-garapenerako ekintzak aurreikusten ditu; besteak beste, parke nazionaletako eragin sozioekonomikoaren eremuetan, herri-administrazioek beren eskumen-esparruaren barnean eta aurrekontu-baliabideen arabera emateko laguntza tekniko, ekonomiko eta finantzarioak. Halaber, herri-administrazioek, modu koordinatuan, garapen-planak ezarri ahalko dituzte eremu horietan. Bereziki, Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoen partaidetzarekin, plan pilotuak abiarazi ahalko ditu ekonomia jasagarria aktibatzeke eta, era berean, Sarean eragin sozial erakusgarria lortzeko. Halaber, ekintza-programak abiarazi ahal izango ditu, parke nazionaletako inpaktu negatiboak minimizatzeke.

Legeak, orobat, jabeek, erabiltzaileek edo bertako biztanleek historikoki parke nazionaletan burutu dituzten jarduera eta erabilera tradizionalak babesten ditu, kudeaketarekin bateragarritzat edo kudeaketarako beharrezkotzat jo baldin badira. Horretarako, herri-administrazioek jarduera tradizionalak zaintzeko eta jarduera horiek parke nazionalaren eguneroko jardueran txertatzeko programa espezifikoa garatuko dituzte. «Espainiako Parke Nazionalak» markaren garapena ere aurreikusten du, gune horietako ekoizpenetarako kalitate-identifikatzaile komun gisa.

Esparru juridiko berria eguneratu eta zehazteko, legea hamaika titulutan egituratzen da. I. titulua, «Xedapen Orokorrak», lege honen xedeaz aritzen da; hau da, parke nazionalen eta horiek osatzen duten Sarearen kontserbazioa ziurtatzeko oinarritzko araubide juridikoa ezartzen du, baita elkarlanerako eta koordinaziorako tresnak ere.

Legearen helburua parke nazionalen gizarteratzea hobetzea da, lurralde-eragileei gaitasuna eta protagonismoa itzuliz; bereziki, jabe publiko eta titular pribatuei, eta inguruetan bizi diren biztanleei.

Legeak, II. tituluan, «Parke nazionalak», ezartzen du gune horien helburua haien balio natural eta kulturalak zaintzea dela, eta lorpen horren mende jartzen ditu gainerako jarduerak (erabilera eta gozamena, sentsibilizazioa, ikerketa, etab.).

Testuak baldintza zorrotzak eskatzen dizkio lurraldeari parke nazional deklaratzeko, aparteko lurralde batzuek bakarrik merezi dezaten halako deklarazioa. Eskakizun hori gure lehenengo parkeak deklaratu zirenean jarri zen agerian; hain zuzen ere, Pedro Pidal jaunak, Parke Nazionalari buruzko lehenengo Legearen txostengile eta sustatzaileak, bere esaldi ospetsua bota zuenean: «gutxi izango dira edo ez dira izango». Lurralde horiek

testuaren eranskinean jasotako sistema natural handietako baten adierazgarri nabarmenak izan behar dira. Azalera jarraitua izan behar dute, zatikatu gabea eta itogunerik gabea, bertako sistemek modu naturalean eboluzionatu dezaten, gizakiaren esku-hartzerik gabe edo ahalik eta esku-hartze txikienarekin. Horri dagokionez, honako hauek hartzen dira gutxieneko azaleratzat: 5.000 hektarea uharteetako lehorreko edo itsasoko-lehorreko parke nazionalak, eta 20.000 hektarea penintsulakoak edo itsas uretan dauden parke nazionalak badira. Lurraldearen eremu gehiena egitura naturalek hartu behar dute, nekazaritza-aprobetxamendu, baso-aprobetxamendu edo aprobetxamendu hidraulikorik gabe, eta erauzketa-jarduerarik edo bertako paisaia alda dezakeen elementu artifizialik gabe. Azkenik, ezin daiteke egon lurzoru urbanizagarririk, ezta hirigintza-eraldaketak izan ditzakeen lurrik ere.

Parke nazional deklaratzeko honako hauek dakartza berekin: helburuak lortzeko burutu behar diren jardueren erabilera publikoa edo interes soziala, eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiltzeko ahalmena, parkearen barnean dauden landa-finken gaineko eskubide errealak «berreskuratzeko».

Deklaratzeko unean parke nazionalaren lurraldean finkatuta dauden jarduerak aztertu egingo dira, gunearen kudeaketa eta kontserbazioarekin bateragarriak edo bateraezinak diren zehazteko. Bateraezinak badira, eskudun administrazioek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte, jarduera horiek deklarazio-legeak ezartzen duen epean erauzteko; ahal izanez gero, borondatezko akordio bidez hartuko dituzte halako neurriak.

Kasu guztietan, bateraezinak izango dira kirol-arrantza eta aisialdiko arrantza, kirol-ehiza eta merkataritzako ehiza, eta merkataritza-helburua duen mozketak. Kudeaketa-arrazoiengatik, eta ezagutza zientifiko hobea izatearekin lotuta, parkeko administrazioak populazioak kontrolatzeko eta habitatak leheneratzeko jarduerak antolatu ahal izango ditu. Bateraezinak dira, baita ere, aprobetxamendu hidroelektrikoak, komunikazio-bideak eta energia-sareak, ingurumena babesteko edo interes sozialerako behar bezala justifikatutako aparteko egoeretan izan ezik, eta, betiere, beste konponbide egokirik ez baldin badago.

Parke nazional deklaraturako lurzoruan ezin izango da urbanizatu, ezta eraiki ere.

Legeak parke nazionalak deklaratzeko aipatzen duen prozedura Estatuak hura kontserbatzeko duen interes orokorrean oinarritzen da. Ekimena autonomia-erkidegoei edo Nazioko Gobernuari dagokie.

Subiranotasun edo jurisdikzio nazionalaren pean dauden itsas uretako parke nazionalak deklaratzeko ekimena Nazioko Gobernuari bakarrik dagokio.

Hasierako onespenerako erabakia hartu ostean, babeserako prebentzio-araubidea sartuko da indarrean, eta araubide horrek deklarazio-legea indarrean sartu arte iraungo du, edo, deklarazio-legerik ezean, gehienez ere bost urteko epean.

Parke nazional baten mugak aldatzeko prozedura parke nazional deklaratzeko ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko da; nolahi ere, salbuespen gisa, eta Ministroen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez, egoera zehatz batzuetan lurra gehitu ahal izango dira parke nazionalera.

Parke nazionalaren izaera galtzeko aukera ere jasotzen du. Galera hori Gorte Nagusien lege bidez gauzatu da eta parke nazionalaren kontserbazio-egoeraren degradazio larrian bakarrik oinarritu ahal izango da.

Titulu honen azken artikulua ingurumen-hondamendi kasuetako larrialdi-deklarazioa arautzen du. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroak du halakoa deklaratzeko eskumena, bere ekimenez zein autonomia-erkidegoen ekimenez; kasu batean zein bestean, Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluari jakinarazi beharko dio. Larrialdi-deklarazio hori gertatzean, eskudun agintariek beren mende dauden giza baliabide eta baliabide materialak mobilizatu beharko dituzte.

III. tituluak «Parke Nazionalen Sarea» du ardatz. Honela definitzen du Sarea: parke nazional deklaraturako guneez, beren oinarritzko arau-esparruak eta funtzionatzeko beharrezkoa den harreman-sistemak osatutako sistema.

Sarearen helburuak zerrendatzen dira bertan, bai eta helburu horiek lortzeko Estatu Administrazio Orokorrak beretzat gordetzen dituen funtzioak ere.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari hiru urtean behin Parke Nazionalen Sarearen egoerari buruzko txostena egiteko agindua ezartzen zaio; txosten hori, Sarearen Kontseiluak txostena egin ostean, Senatuari igorriko zaio.

III. titulua Sarearen irudi korporatiboari eta nortasun grafikoari zuzendutako artikulua batekin amaitzen da.

IV. tituluak «plangintza-tresnak» arautzen ditu. Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planari oinarrizko irismena eta plangintzarako tresna gorenaren izaera ematen dizkio; era berean, plana prestatzeko prozedura errazten du, eta kontserbaziorako oinarrizko gidalerroak nabarmetzen eta indartzen ditu.

Zuzentzeko Planak gidalerro-izaera izango du baliabide naturalak antolatzeari dagokionez, ingurune naturala babesteko legediarekin bat etorritik. Horrela, araubide benetan esklusibo eta erabat espezifikoak aitortu nahi zaie parke nazionalerako lurraldeei, haien berezitasun guztietara egokitzeko diseinatua.

Indartu egiten du Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren zeregina, horren esangura ziurtatuz, nabarmena izan dadin parke nazionala antolatzeko tresna dela eta planaren betearazpena neurtzeko aukera eman dezan. Zehazki, eduki hauek berreskuratzen ditu: plangintza ekonomikorako konpromisoak, parke nazionalaren helburuak lortzeko esleitutako administrazioen gaitasun eta hornidurak, eta titular eta jabeekin lankidetzan aritzeko araubidea.

Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak bat etorri beharko dira Zuzentzeko Planarekin eta gailendu egingo zaizkio hirigintza-plangintzari.

Azkenik, arloko planen figura sartzen du oinarrizko ordenamendu juridikoan, eta egiteko tekniko espezializatuak esleitzen dizkie.

V. tituluak «kudeaketa» aipatzen du. Lehorreko edo itsasoko-lehorreko parke nazionalak kudeatzea autonomia-erkidegoei dagokie zuzenean; subiranotasun edo jurisdikzio nazionalaren pean dauden itsas uretako parke nazionalak kudeatzea, berriz, Estatuari dagokio.

Hala ere, Estatuak beretzat gordetzen du, salbuespen gisa, lehorreko edo itsasoko-lehorreko parkeetan esku hartzeko aukera, parke nazionala kontserbazio-egoera txarrean dagoela erakusten duten datu sendoak dituenen, eta koordinazio-mekanismoak haren kontserbazioa bermatzeko eraginkorrak ez direnean. Horrelakoetan, Estatuak Administrazio Orokorrek, modu puntual, zehatz eta berezian, parke nazionalerako sistema naturaletan kalte konponezinak saihesteko nahitaezko eta beharrezko neurri eta ekintzak ezarri ahal izango lituzke.

Legeak Zuzentzeko Planaren esku uzten du parke nazional baten kontserbazio-egoera txarra dela zehazteko bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzeko eginkizuna.

Halaber, legeak Estatuak Administrazio Orokorren esleitzen dio Parke Nazionalen Sarea kudeatzeko eginkizuna.

VI. tituluak «elkarlanerako eta koordinaziorako organo aholku-emaileak» xedatzen ditu. Konstituzio-doktrinaren arabera, Estatuari dagokio koordinatzeko ahala garatzea, eta, hain zuzen ere, horixe da arau hau egiteko arrazoi nagusietako bat. Koordinazio-lan hori garatu gabe, benetan zaila izango litzateke Sareko parke guztientzako kudeaketa-esparru homogenea lantzea.

Berrikuntza gisa, zehazki koordinaziorako eta elkarlanerako printzipioak garatzeaz arduratuko diren bi organo sortzen dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen I. tituluan xedatutakoaren arabera. Hain zuzen, lege honek Koordinazio Batzorde bat sortzen du autonomia-erkidegoaz gaindiko parke nazional bakoitzean, bai eta Lankidetzaren eta Koordinaziorako Komite bat ere, zeinak parke guztietako arduradun teknikoak bilduko dituen, aldizka, Sarekoekin batera.

Parke nazionalak kudeatzea autonomia-erkidegoei dagokie, eta Estatuaren oinarrizko legerian kokatu eta oinarritu behar dute eginkizun hori. Arlo honetan, ondoko hauek osatzen dute Estatuaren oinarrizko legeria hori: lege honek (oinarrizko araudi orokor gisa), Sarea Zuzentzeko Plana maila goreneko plangintzarako tresna gisa onesten duen Errege

Dekretuak eta deklarazio-legeek (parke nazional bakoitzeko oinarrizko legedi espezifikoa gisa).

VI. tituluak organo aholku-emaileak arautzen ditu, halaber. Parke Nazionalen Sarearen Batzordeak jarraitzen du maila goreneko organo aholku-emailea izaten, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroa buru dela.

Patronatua organo aholku-emailea eta gizartearentzako partaidetza-organoa da; parke nazional bakoitzak berriazko patronatua du, eta parke nazionalen intereserako ezarritako arauen betearazpena zaintzea du xede. Bertan, honako hauek daude ordezkatuta: eremuko eragile sozialak, parkean dauden lurren jabe publiko eta pribatuak, parkearekin lotutako instituzio, elkarte eta erakundeak edo lege honen inspirazio-iturri diren printzipioekin bat datozen helburuak dauzkatenak, bai eta herri-administrazioak ere. Estatuko Administrazio Orokorraren eta autonomia-erkidegoen ordezkari-kopuruari dagokionez, osuera paritarioa izango da.

Legeak Parke Nazionalen Komite Zientifikoa ere barne hartzen du. Bere funtzio orokorra aholkularitza zientifikoa eskaintzea da, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoak bere ekimenez edo parke nazionalen administrazio kudeatzaileek eskatuta edozein kontsulta egiten dionean.

VII. tituluak «ekintza itunduei» buruzkoa da, eta parke nazionalen kudeaketan parte hartzen duten herri-administrazioen jarduna zuzendu behar duten printzipioak jasotzen ditu: elkarri informazioa ematea, lankidetzan aritzea eta elkarlana bultzatzea.

Halaber, parke nazionalen barnean dauden Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren jabetzako finkak hitzarmenen xede izan ahalko dira, parke nazional osoan kudeaketa integratua ziurtatzeko.

Finantza-lankidetzari dagokionez, Estatuko Administrazio Orokorrak egoki diren mekanismoak ezarriko ditu erabakitzen diren ekintza berezi, zehatz eta apartekoak gauzatzeko, bai eta, autonomia-erkidegoekin elkarlanean, Sareko programa komun eta horizontalak abian jartzeko ere. Halaber, Estatuko Administrazio Orokorraren esku egongo da ekintza-programa multilateralak abiarazi eta finantzatzea, Sarearen Kontseiluak onetsitako lehentasun-irizpideak aplikatuz eta borondate-tasun-printzipioa errespetatuz.

Legeak, tresna publiko-pribatuak sustatuz, atek zabaltzen dizkie baliabide pribatuei, Parke Nazionalen Sarea kudeatu ahal izateko finantza-baliabide osagarriak jasotzeko.

VIII. tituluak «lurralde-garapena» xedatzen du. Parke nazionalari lurra ematen dioten udal-mugarteek eta, salbuespen gisa, horretarako arrazoi objektiboak baldin badaude, zuzenean lotutako beste batzuek osatzen duten eragin sozioekonomikoaren eremua zehazten du, modu mugatuagoan. Itsasoko edo itsasoko-lehorreko parke nazionalen kasuan, eragin sozioekonomikoaren eremuan bildu ahal izango dira lurralderik eman ez arren egoera geografikoa dela eta parkearen albokoak diren udalerrak.

Eremu horietan, herri-administrazioek laguntza tekniko ekonomiko eta finantzarioak eman ahal izango dituzte beren eskumen-esparruan. Halaber, modu koordinatuan, garapen-planak ezarri ahal izango dituzte; horretarako, dagozkien partzuergoak eratu edo elkarlanerako hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte tartean diren talde, administrazio edo erakundeekin.

Berrikuntza gisa, legeak ekintza puntual bereziak jasotzen ditu, autonomia-erkidegoen partaidetzarekin, ekonomia jasagarria aktibatze eta, era berean, Sarean eragin sozial erakusgarria lortzeko programa pilotuak abiaraziz.

Amaitzeko, titulu honetan, parke nazionalak jabeek, erabiltzaileek edo bertako biztanleek historikoki gauzatu dituzten erabilera eta jarduera tradizionalak babesten ditu legeak, parke nazionalarekin bateragarritzat jo diren kasuetan.

IX. tituluak «nazioarteko harremanak» xedatzen ditu, eta, arlo honetan, Estatuko Administrazio Orokorrak duen egitekoa nabarmentzen da; nazioartean antzeko beste sare batzuekin lankidetzara eta elkarlanerako tresnak ezartzen dira, nazioarteko elkarlan-programa inplementatzen da, eta nazioarteko sare, erakunde edo instituzioetan parte hartzea ziurtatzen da.

Halaber, parke nazionalen irudia eta balioak nazioartean hedatzeko eta sustatzeko xedeak aurreikusten ditu, hainbat urtetarako ekintza-programen bidez.

X. tituluak «gizarte-proiektzioa eta -partaidetza» arautzen ditu. Parke nazionalak erreferente izan behar dira, ez soilik horiek kontserbatzeko moduan, baizik eta kudeatzeko eta gizartea bere jardueretan inplikatzeko moduan ere bai. Horretarako, kudeaketa-jardueretan sektore eta taldeak integratu nahi dira, baita bertan bizi den biztanleria inplikatu eta lagundu ere, dauden eremuen lurralde-kohesioa lortzearen.

Legeak aintzat hartzen ditu parke nazionaletan eskubideen titular direnak ere; hala, parke nazionalaren kontserbazioan bertan integratzen ditu, eta jarduera ekonomikoak edo merkataritza-jarduerak garatzeko gaitasuna aitortzen die (bereziki, erabilera publikoarekin edo landa-turismoarekin zerikusia duten jarduerak).

Parke nazionalak gizartearen aurrean proiektatzeko ekitaldi edo jardueretan presentzia instituzional egokia izango dutela xedatzen da.

Azkenik, XI. tituluak «arau-hauste eta zehapenen araubidea» xedatzen du. Araubide hori ingurune naturalaren babesari buruzko legedian ezarritakoa izango da, baina, hala ere, parke nazionalen deklarazio-legeek zehapen-araubide espezifikoa ezarriko dute parke horietako bakoitzerako.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Legearen xedea.*

Lege honen xedea parke nazionalen eta parke nazionalek osatzen duten Sarearen kontserbazioa ziurtatzeko oinarritzko araubide juridikoa ezartzea da, baita koordinaziorako eta elkarlanerako tresnak ere.

2. artikulua. *Botere publikoen betebeharrak.*

Botere publiko guztiak eta, bereziki, herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-esparruan, parke nazionalen kontserbazioa zainduko dute.

Horretarako, gizartearen elkarlana eta partaidetza aktiboa sustatuko dituzte parke nazionalen eta Sare osoaren helburuak lortzeko, eta arlo honetan eskuragarri dagoen informaziorako irispidea eta interes publikoa duten datuen hedapena bermatuko dute.

Bereziki, parke nazionaletan eskubide pribatuen titularren inplikazioa sustatuko dute, baita inguruetan bizi diren biztanleena ere.

3. artikulua. *Definizioak.*

a) Babes-eremu periferikoa: parke nazionalaren kanpoko eremu jarraitua eta mugakidea da, itsasokoa edo lehorrekkoa; eremu horrek berariazko araubide juridikoa du, parkearen balioak inguruan zabaltzeko eta kanpotik datozen inpaktu ekologikoak edo paisaia-inpaktuak parke nazionalaren barnean leuntzeko xedez.

b) Parke nazional baten eragin sozioekonomikoaren eremua: parke nazionalari lurra ematen dioten udal-mugarteek osatzen duten lurraldea da, bai eta, salbuespen gisa, eta betiere horretarako arrazoi objektiboak baldin badaude, zuzenean lotutako beste lur batzuek osatzen dutena, deklarazio-legeetan horrela agertzen bada. Eremu horretan, garapenerako politika aktiboak gauzatuko dituzte herri-administrazioek.

c) Sistema naturala: elkarren mendeko diren elementu eta prozesu biologiko, geologiko eta klimatikoen multzoa da; lurralde batean askatasunez bilakatzearen ondorioz, lurralde horren ekologia eta paisaia taxutzen dituzte, inguru berezi, zehazgarri eta bereizgarria definitu arte.

d) Kontserbazio-egoera txarra: Zuzentzeko Planean biltzen diren indize eta parametroen emaitzen arabera, parke naturalak duen egoera desegokia.

II. TITULUA

Parke nazionalak

4. artikulua. *Ezaugarriak.*

Parke nazionalak balio ekologiko eta kultural handiko naturaguneak dira, ustiapenak edo giza jarduerak gutxi aldatutakoak; beren paisaien edertasunagatik, bertako ekosistemen adierazgarritasunagatik edo flora, fauna, geologia edo eraketa geomorfologikoen berezitasunagatik, balio ekologiko, estetiko, kultural, hezkuntza-balio eta balio zientifiko nabarmenak dituzte; horiek kontserbatzeak lehentasunezko arreta merezi du eta Estatuaren interes orokorreko deklaratzeko da.

5. artikulua. *Helburuak.*

Parke nazional deklaratzearen helburua bertako balio naturalen osotasuna eta paisaiak kontserbatzea da, eta, horri baldintzatuta, pertsona guztiei haien erabilera eta gozamen soziala bermatzea, edozein direla ere pertsona horien ezaugarriak (adina, desgaitasuna, maila kulturala, etab.); beste helburu hauek ere baditu: gizartearen ingurumen-sentsibilizazioa sustatzea, ikerketa zientifikoa bultzatzea eta inplikaturik dauden populazioen garapen jasagarria indartzea, guneko balio kulturaleri, ondare ez-materialari eta jarduera zein erabilera tradizionaleri eutsiz.

6. artikulua. *Lurralde-eskakizunak.*

1. Gune batek eskakizun hauek bete behar ditu parke nazional deklaratu izan dadin:

a) Lege honen eranskinean adierazitako sistema naturaletako baten edo batzuen adierazgarri nabarmena izango da, espezie-tipologia eta ezaugarri naturalei dagokienez, eta, era berean, sistema naturalen ekarpen gehigarria egin behar du, horien hobekuntza agerian uzteko moduan.

b) Sarean ordezkatu nahi duen sistema naturaleko berezko espezie eta komunitateen proportzio garrantzizkoa izango du, baita espezie edo komunitate horiek modu naturalean eboluziona dezaten bermatzeko eta kontserbazio-egoera ona mantendu edo lortzeko lurralde-gaitasuna eta gaitasun ekologikoa ere.

c) Azalera jarraitua izan behar du, zatikatu gabea eta itogunerik gabea, ezaugarri fisiko eta biologikoak mantendu ahal izateko modukoa, eta bertan dauden prozesu naturalen funtzionamendua ziurtatzeko egokia. Helburu horietarako, parke nazionalaren azalera, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, honako neurri hauek izango ditu:

– Gutxienez 5.000 hektarea uharteetako lehorreko edo itsasoko-lehorreko parke nazionaletan.

– Gutxienez 20.000 hektarea penintsulako lehorreko edo itsasoko-lehorreko parke nazionaletan eta itsasoko uretan dauden parke nazionaletan.

d) Azalera egokian, eraketa naturalez osatuta egongo da, nekazaritza-aprobetxamendurik, baso-aprobetxamendurik edo aprobetxamendu hidraulikorik gabe, eta bertako paisaiaren estetika edo ekosistemen funtzionamendua modu esanguratsuan alda dezakeen elementu artifizialik gabe.

e) Ezin izango du erauzketa-jarduerarik edo agregakin, hondar edo mineralen ustiapenik ez, ezta kirol-erabilera, erabilera industrial edo aisialdi-erabilerako instalaziorik, parke nazionalaren erabilera publikoko edo bisitako programaren barnean ez badaude.

2. Parke nazional batean sartzeko proposatutako azalera ezin daiteke egon hirigintza-eraldaketak izan ditzakeen lurzorurik, ez eta lurzoru urbanizaturik ere.

3. Parke nazional izateko proposatutako gunean elementu artifizialik egonez gero, elementu horiek lotura historiko eta kulturala eduki beharko dute eta ingurune naturalean integratuta egon beharko dira, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik eta, betiere, Parke Nazionala kontserbatzeko helburuekin bateragarriak baldin badira.

7. artikulua. *Deklaratzeari lotutako ondorio juridikoak.*

Deklaratze-legeetan babeserako ezarritako araubide juridikoak lehentasuna izango du arloko beste edozein araudiren aurrean. Bereziki ondorio hauek izango ditu deklaratzek:

1. Herri-administrazioek parke nazionalen helburuak betetzeko egin beharko dituzten jardueren erabilera publikoa edo interes soziala; bereziki, oinarrizko jardueren kasuan.

2. Administrazio eskudunak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak gauzatzeko ahalmena, parke nazionalaren barruan kokatutako landa-eremuko finken gaineko jabetza edo beste edozein eskubide erreal (berme-eskubideak izan ezik) sortzea, eskualdatzea edo aldatzea dakarten kostu bidezko *inter vivos* ekintza edo negozio juridikoei dagokienez, aipatutako eskubide errealen titular diren sozietateen kapital sozialean gehiengoa eskuratzeko dakarren edozein operazio edo negozio barne. Ondorio horietarako:

a) Eskualdatzaileak modu frogagarrian jakinaraziko dizkio administrazio eskudunari egin nahi duen eskualdatzearen prezioa eta funtsezko baldintzak. Jakinarazpen hori egiten duenetik hasita hiru hilabeteko epean, aipatutako administrazioak lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu ahal izango du; kasu horretan, hitzartutako prezioa gehienez ere bi ekitaldi ekonomikoren epean ordaintzeko konpromisoa hartuko du bere gain.

b) Eskualdatzearen arrazoa modu frogagarrian jakinarazi ez bada, administrazio eskudunak atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du, eskualdatzearen berri izan duen egunetik hasita urtebeteko epean, eta lehentasunezko erosketarako aurreikusitako baldintza berberetan.

c) Jabetza-erregistratzaileek eta merkataritza-erregistratzaileek ez dute aipatutako ondasunen gaineko eskubideen eskualdatzerik edo eraketarik inskribatuko, paragrafo honetan adierazitako baldintzak bete direla frogatzen ez bada.

3. Deklaratzeko unean parke nazionalaren lurraldean finkatuta dauden jarduerak aztertu egingo dira, gunearen kudeaketa eta kontserbazioarekin bateraezinak direnak zehazteko. Jarduera bateraezinek bada, administrazio eskudunek beharrezko neurriak hartuko dituzte, deklarazio-legeak ezartzen duen epearen barnean haiek desagerrarazteko, ahal izanez gero borondatezko akordioen bidez. Ondoko jarduera hauek bateraezinak izango dira beti:

a) Kirol-arrantza eta aisialdiko arrantza, kirol-ehiza eta merkataritzako ehiza, eta merkataritza-helburuak dituen mozketak. Deklaratzeko unean jarduera horiek egonez gero, administrazio eskudunek haiek desagerrarazteko beharrezko neurriak hartuko dituzte, deklarazio-legeak horretarako ezarriko duen epearen barruan.

Parke nazionala kudeatzen duen administrazioak populazioak kontrolatzeko eta habitatak leheneratzeko jarduerak programatu eta antolatu ahal izango ditu, Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planaren eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren helburu eta zehaztapenen arabera.

b) Aprobetxamendu hidroelektrikoak, komunikazio-bideak, energia-sareak eta beste azpiegitura batzuk, ingurumena babesteko edo interes sozialerako behar bezala justifikatutako aparteko egoeretan izan ezik, eta beste konponbide egokirik ez baldin badago. Deklaratzeko unean jarduera edo instalazio horiek baldin badaude eta kendu ezin baldin badira, administrazio eskudunek horien eraginak zuzentzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte, deklarazio-legeak horretarako ezarriko duen epearen barruan.

c) Mineralen, hidrokarburoen eta agregakinen ustiategiak eta erauzketak, eta harrobiak.

d) Beste baliabide batzuen aprobetxamendua, parkearen helburuekin bateragarriak ez badira, finkatutako eskubideetan oinarritzen ez badira edota deklarazio-legean aitortutako balio kulturalen, ez-materialen edo ekologikoen ekarpena ez badira.

e) Lursailaren gainetik 3.000 metroko altueratik behera hegaz egitea, berariazko baimenarekin edo ezinbestean izan ezik.

4. Arroetako plan hidrologikoen eta arlo hidraulikoetan eskumena duten administrazioek parke nazionalerako balioak mantentzeko eta helburuak lortzeko kantitate eta kalitate egokietan ziurtatuko dituzte baliabide hidrikoak.

5. Ondare-ondasunak eta ondare-eskubideak gabetzen badira, bereziki deklaratzeko unean parke nazionalaren barnean aitortutako erabilera eta aprobetxamenduei buruzkoak, edo titularrak juridikoki jasan beharrik ez duen edozein muga jartzen baldin bada aipatutako eskubideak erabiltzerakoan, kalte-ordaina jasoko dute titularrek, Nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legean eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera. Herri-administrazioek, aurreko egoeraren aurrean, ahalik eta azkarren jardungo dute, hala balegokio kalte-ordaina emateko, deklarazio-legearekin bat etorritik.

6. Parke nazional deklaratu den lurzorua ezin izango da urbanizatu, ezta bertan ezer eraiki ere, kalterik egin gabe parke nazionalaren kudeaketa bermatzeko eta helburuak hobeto betetzeko beharrezkoak diren instalazioei buruz Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak ezarritakoari.

8. artikulua. *Deklarazio-prozesua.*

1. Parke nazionalaren deklarazioa Gorte Nagusien lege bidez gauzatuko da; horretarako, gune horien kontserbazioan eta Sareari egindako ekarpenean Estatuak duen interes orokorra hartuko du oinarri gisa.

Deklarazioa jasotzen duen parkea Espainiako Parke Nazionalen Sarean sartuko da.

Sarean ordezkaturik ez dauden sistema naturalen sarrera dakarten proposamenek lehentasuna izango dute.

2. Gune bat parke nazional deklaratzeko ekimena gune hori dagoen autonomia-erkidegoari edo autonomia-erkidegoei dagokie, edota Nazioko Gobernuari.

Hala balegokio autonomia-erkidegoak edo autonomia-erkidegoek dagokion Baliabide Naturalak Antolatze Plan onesteari kalterik egin gabe, honela formalizatuko da ekimena: Ministroen Kontseiluak eta parke nazionala izango dena dagoen lurraldeko autonomia-erkidegoetako organo egokiak egindako baterako proposamenari hasierako onespena emanaz.

3. Deklarazio-proposamenen, honako datu hauek jasoko dira:

a) Parke nazionalaren deklarazioarekin lortu nahi diren helburuak.

b) Muga geografikoak.

c) Parke nazionalerako ezarritako eskakizunak betetzearin inguruko azterketa zientifikoa eta teknikoa.

d) Proposamenen jasotako sistema naturalen kontserbazio-egoerari buruzko diagnostiko ekologikoa.

e) Gunearen balio naturalekin lotutako ondare kulturalaren –materiala eta immateriala– diagnostikoa.

f) Eraginpeko udalerrien eta bailarako edo eskualdeko testuinguruaren azterketa sozioekonomikoa.

g) Deklarazioak lehendik dauden erabileretan izango duen eraginaren ebaluazioa eta parke nazionalaren figurarekin duten bateragarritasuna.

h) Deklarazioaren ondorioak balioztatu ahal izateko ingurumen-ikerketak eta ikerketa sozioekonomikoak, bertako biztanleriaren aldetik proposamenak duen onarpen-mailari buruzko azterketa, eta eraginpeko herri-administrazioen aurrekontuan izango duen ondorioari buruzko balioespenen txosten ekonomikoa.

- i) Babes-eremu periferikoaren mugaketa eta araubide juridikoa.
- j) Eragin sozioekonomikoaren eremuaren mugaketa.
- k) Prebentziozko babes-neurrien identifikazioa.
- l) Parke nazional deklaratu nahi den lurraldean dauden beste babes-figurekin izan dezakeen gainjartzeari buruzko azterketa.
- m) Erabilera publikoko guneetako irisgarritasunari buruzko diagnostikoa eta gune horiek pertsona guztiek erabiltzea eta gozatzea bermatzeko ekintzen proposamena.

4. Hasierako onespeneren ondoren, autonomia-erkidego bakoitzak jendaurrean jarriko du proposamena, gutxienez hiru hilabetez. Epe horretan jasotako alegazioak eta alegazioen erantzunak espedienteari gehituko zaizkio, eta hori guztia Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioari bidaliko zaio.

5. Ondoren, eraginpeko ministerio-sailen eta administrazio autonomikoen txostenak bilduko dira, baita, hala balegokie, parke nazionalari lurraldea emango dioten udalerrien txostenak ere.

6. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak, aurreko paragrafoetan aipatutako txostenak, kontsultak eta espedienteari gehitutako gainerako dokumentazioa kontuan hartuta, proposamen berri bat egingo du. Proposamen hori Ministroen Kontseiluak eta eraginpeko autonomia-erkidegoetako organo egokiek onetsi beharko dute. Azkenik, Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluak aldeko txostena egin beharko du.

7. Aurreko izapideen ondoren, Gobernuak dagokion lege-proiektua prestatu eta onetsiko du, eta Gorte Nagusiei bidaliko die.

8. Parke nazional deklaratutakoa subiranotasun edo jurisdikzio nazionalaren pean dauden itsas uretan badago, deklaratzeko ekimena Nazioko Gobernuari dagokio. Ekimen hori dagokion proposamenari hasierako onespenera emanez formalizatuko du. Geroko prozeduran, proposamena jendaurrean jarriko da Estatuko Aldizkari Ofizialean, gutxienez hiru hilabetez, eta jasotako alegazioak eta alegazioen erantzunak espedienteari gehituko zaizkio. Halaber, eraginpeko ministerio-sailek, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek txostena egingo dute, baita Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluak ere. Aurreko izapideak bete ostean, Gobernuak lege-proiektua prestatu eta onetsiko du, eta Gorte Nagusiei bidaliko die, deklarazioa gauzatu dezaten.

9. artikulua. *Prebentziozko babes-araubidea.*

1. Proposamenean jasotako prebentziozko babes-neurriak hasierako onespenera emateko akordioarekin batera sartuko dira indarrean, eta deklarazio-legea indarrean sartu arteko iraupena izango dute; deklarazio-legerik ezean, gehienez ere bost urteko indarraldia izango dute.

2. Prebentziozko babes-araubide horren ondorioz, ezin izango da errealitate fisiko edo biologikoa aldatzeko gaikuntza ematen duen beste inolako baimen, lizentzia edo emakida gehigarri eman, eskudun ingurumen-administrazioaren aurretiko aldeko txostenik gabe. Bereziki, proposamenean jasotako gunea ezin izango da hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu.

3. Herri-administrazioek hiru hilabetezko epea izango dute aurkeztutako eskaerak erantzuteko; epe hori igaro ostean, eskaerak ezetsizat joko dira.

10. artikulua. *Deklarazioaren edukia.*

Gune bat parke nazional deklaratzeko legeak honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- a) Parkearen izena.
- b) Parkeak bete beharreko oinarriko helburuak.
- c) Parkearen lurralde-eremua, dituen muga geografikoen deskribapenarekin.
- d) Sistema naturalen, espezie aparteko eta endemikoen, paisaien eta, oro har, deklarazioa eragin duten balioen deskribapena.

e) Sarearen barnean, parkearen helburuen lorpena aldatu edo arriskuan jartzen duten erabilera eta jarduera guztien debekuak eta mugak, kalterik egin gabe legezko eskubide eta ondare-interesen ondorio izan daitezkeen kalte-ordainei eta, hala balegokio, kentzeko epeari.

f) Aplikatuko den zehapen-araubide zehatza.

g) Parkearen babes-eremu periferikoaren lurralde-eremua, bere muga geografikoen eta aplikatzekoa den araubide juridikoaren deskribapenarekin, parkean kanpotik etor daitezkeen inpaktuak ekiditeko.

h) Eragin sozioekonomikoaren eremua.

11. artikulua. *Lurralde-mugak aldatzea.*

1. Parke nazional baten muga aldaketa parke naturalak deklaratzeko ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko da, edota parke nazionalaren deklarazio-legean berriaz ezarritakoaren arabera.

2. Salbuespen gisa, Ministroen Kontseiluaren akordio bidez, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egindako proposamenari jarraiki, bere ekimenez edota dagokion autonomia-erkidegoaren ekimenez, parke nazionalera gehitu ahal izango dira mugakide dituen lehorreko edo itsasoko gunek, baldin eta antzeko ezaugarriak badituzte edo parkearen balioak osatzen badituzte; betiere, ondorengo inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Estatuaren edo autonomia-erkidegoen titulartasunekoak izatea.
- b) Ondare publikoan sartzea, lege honen xedeak hobeto betetzeko.
- c) Jabeek ematea, aipatutako xedeak lortzeko.

Proposamena jendaurrean jarriko da, gutxienez bi hilabeteko epean, eta aurkeztutako alegazioak espedienteari gehituko zaizkio. Ministroen Kontseiluari aurkeztu aurretik, Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluak eta, hala balegokio, Koordinazio Batzordeak proposamenaren inguruko txostena egingo dute.

12. artikulua. *Parke nazionalaren izaera galtzea.*

1. Parke nazionalaren izaera Gorte Nagusien lege bidez galduko da. Nazioko Gobernuak egingo du horretarako proposamena, eraginpeko autonomia-erkidegoek zehaztutako organoa entzun ondoren, hiru hilabetez jendaurrean jarri ostean, eta Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluaren aldeko txostena jasota.

2. Parke nazionalaren izaera soilik galdu ahal izango da eskatutako betekizunak betetzeari uztean edo kontserbazio-egoera ona modu larri eta konponezinean degradatzean, eta ekosistema inola ere leheneratu ezin denean.

3. Parke nazionalaren izaera galdu ostean, naturagunearen plangintza eta kudeaketarako tresnek indarrean jarraituko dute, eskudun administrazioak naturagunearen egoera juridikoa ordezkatu, aldatu edo egokitu arte.

13. artikulua. *Ingurumen-hondamendiagatik larrialdi-egoera deklaratzea.*

1. Ingurumen-hondamendia gertatzen bada, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroak, bere ekimenez, parke nazionala dagoen autonomia-erkidegoari edo autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, edo eskudun agintariek eskatuta, larrialdi-egoera deklaratu ahal izango du parke nazionalan, kalte konponezinak gertatzea galarazteko; betiere, kalte horiek koordinazio-mekanismo arruntan bidez ekidin ezin badira.

Kasuotan egongo da ingurumen-hondamendiak eragindako larrialdia: parke nazionalako sistema naturalen integritate eta segurtasunarentzako arrisku larri eta benetakoa dagoenean, pertsona eta ondasunei eragin ez arren, eta, bere egiazko dimentsioengatik edo aurreikusgarriengatik, koordinazio nazionala behar duenean eta, gainera, Estatu bitartekoetara jotzea eskatzen duenean.

Deklarazioa Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroaren ekimenez egin bada, berehala jakinaraziko zaie parke nazionalaren kudeaketa arrunt eta ohikoaz arduratzen diren agintari autonomikoei.

Ingurumen-hondamendia babes zibilaren eremuan kokatzen bada, gaian eskumena duten agintariei egokituko zaie larrialdia deklaratzeari; nolahi ere, larrialdia interes nazionalakoa bada, Barne Arazoetako ministroari egokituko zaio. Kasu guztietan, Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluari jakinaraziko zaio, artikuluko honetako 4. paragrafoan xedatzen den deialdiari kalterik egin gabe.

2. Parke nazionalaren integritate eta segurtasunerako arrisku larria dagoela zehazteko irizpideak zein larrialdi-egoera deklaratzearen ondorioak eta burutu beharreko ekintza nagusiak Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planean jasoko dira.

3. Ingurumen-hondamendiagatik parke nazional batean larrialdi-egoera deklaratzeari honako ondorio hauek izango ditu, Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planaren arabera:

a) Parke Nazionalak Erakunde Autonomoko presidentek mobilizazio-zereginak koordinatzeaz eta larrialdi-egoeraren zerbitzura jarritako baliabide pertsonal eta material guztiak erabiltzeaz arduratuko den pertsona hautatuko du.

b) Dagokion parke nazionalaren eta Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren artean informazio-truke iraunkorra eta etengabekoa izango da.

c) Eskudun agintariek beren esku dauzkaten beharrezko giza baliabide eta baliabide materialak mobilizatzeko betebeharra izango dute, larrialdi-egoera deklaratzeari eskatzen dituen jarduketak-mekanismoak modu eraginkorrean ezartzeko, eta, beharrezkoa baldin bada, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoko presidentek beste parke nazional batzuetako kudeaketa-arduradunei laguntza eskatuko die, baita parke nazional horietako baliabideen larrialdi-operatiboa lagatzeko ere, Erakunde Autonomoaren eta larrialdi-egoerak eragindako autonomia-erkidegoaren edo autonomia-erkidegoen baliabideekin batera erabiltzearen.

d) Parkea kudeatzen duen administrazioak eta Parke Nazionalak Erakunde Autonomoak txosten bateratua idatziko dute; txosten horretan, egindako jarduerak, sortutako kalteen ebaluazioa eta kaltetutako eremua edo eremuak ingurumenaren aldetik lehengoratzeko proposatutako neurriak adierazi beharko dira.

4. Larrialdi-egoera deklaratu ondoren, Parke Nazionalen Sarearen Kontseilua premiaz deituko da, deklarazioa eragin duten inguruabarren berri izan dezan. Halaber, egoera horri aurre egiteko hartu diren neurriak jakinaraziko zaizkio; bereziki, beste parke nazional batzuetako langileen eta baliabide materialen mobilizazioari buruzkoak.

5. Larrialdi-egoeraren amaiera Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroak erabakiko du, ebazpen ziodunaren bidez, eta Sarearen Kontseiluaren osoko bilkurari eta deklarazioak eragindako parkea edo parkeak kudeatzeaz arduratzen diren agintariei jakinaraziko die.

6. Parke nazional bakoitzean, parkea kudeatzen duen organoak autobabeserako plana egin beharko du, gerta daitezkeen arriskuak prebenitzeko eta, hala balegokio, horiei aurre egiteko. Plan horrek babes zibileko planekin koordinatzeko mekanismoak jaso beharko ditu.

7. Artikuluko honetan xedatutakoa ez da aplikatuko itsasoko kutsadurak eragindako ingurumen-hondamendiak itsas parke nazional baten urak kaltetzen dituen; kasu horietan, larrialdi-deklarazioa eta burutu behar diren jarduketak ondoko arau hauetan jasotakora egokituko dira: Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilar buruzko Legearen testu batgina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta horren osagarri den Itsasoko Kutsadurari Aurre Egiteko Sistema Nazionala arautzen duen legedia.

III. TITULUA

Parke Nazionalen Sarea

14. artikulua. *Ezaugarriak.*

Parke Nazionalen Sarea hauxe da: parke nazional deklaraturako guneek, beren oinarrizko arau-esparruak eta funtzionatzeko behar duten harreman-sistemak osaturako sistema.

15. artikulua. *Helburuak.*

Parke Nazionalen Sarearen oinarrizko helburua etorkizuneko belaunaldientzat lege honen eranskinean aipaturako Espainiako sistema natural nagusien lagin adierazgarri baten kontserbazioa bermatzea da; Parke Nazionalen Sarearen helburu zehatzak, berriz, honako hauek dira:

- a) Sistema natural horien sistema osatu eta adierazgarria sortzea.
- b) Parke nazionalak teknikaren, gizartearen eta ondarearen arloetan dituzten helburuak betetzen laguntzea.
- c) Sareko parke guztietan jarduketa-esparru homogeneoa ziurtatzea, kontserbazio-egoera ona mantentzeko beharrezko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko.
- d) Parke nazionalen eta Sarearen esparruan, kudeaketaz arduratzen diren herri-administrazioek sustaturako ekintzetan sinergiak lortzea.
- e) Parke nazionalen inguruaren garapen sozioekonomikoa laguntzea, administrazioekin eta lurraldean dauden beste gizarte-eragile batzuekin elkarlanean jardunez.
- f) Gure parke nazionalak kanpoan duten irudia sustatu eta indartzea, bai eta arlo honetan politika espainiarrek nazioartean daukaten egitekoa ere.
- g) Gizartean ingurumen-kontzientziarioa sortzen laguntzea, egoki diren beste instituzio eta erakunde batzuekin lankidetzan.

16. artikulua. *Estatuko Administrazio Orokorraren eginkizunak.*

1. Aurreko helburuak lortzeko, Estatuko Administrazio Orokorrak honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plana egin eta berrikustea, interes orokorreko deklaratu diren kontserbazio-balioak kudeatzeko gidalerro eta irizpide komunak barne hartuz.
- b) Autonomia-erkidegoekin elkarlanean, batera adostuta identifikaturako ezohiko programen eta aparteko ekintzen oinarrizko diseinua egitea eta abiaraztea; betiere, borondatetasun-printzipioa errespetatuz.
- c) Sarearen segimendua eta ebaluazioa egitea (bereziki, helburuen betearazpena eta lorpen-mailarena), Sarearen Kontseiluak ezarritako prozeduraren arabera.
- d) Zuzentzeko Planaren barnean, Sarearen ekintza komun eta horizontalen programa espezifikoak prestatzea; programa horrek homogeneoa eta integratzailea beharko du izan.
- e) Langileen irudi korporatiboa eta beren zereginak eskatzen duten behar bezalako uniformetasuna mantentzeko irizpide komunak ezartzea.
- f) Parke nazionaletan ezagutza zientifikoa hobetzen eta ikerketa bultzatzen laguntzea, baita eskura dagoen informazioa behar bezala hedatzen ere.
- g) Sarean lanean ari diren pertsonen artean komunikazioa eta esperientzien zein ezagutzen trukea erraztea.
- h) Parke nazionaletako balio naturalak pertsona guztiek gozatu eta ezagutu ditzaten laguntzea, horiek kontserbatzeko bide eraginkorrena baita.

- i) Inplikaturaren dauden administrazio eta sektoreen artean lankidetzaren tresnak ezar daitezkeen proposatu eta sustatzea, parke nazional bakoitzaren eta Sare osoaren helburuak lortu ahal izateko.
- j) Parke Nazionalen Sarearen hedapen eta proiektioarekin lotutako jardueraren ekonomikoak sustatzea, bere eskumenen eremuan.
- k) Sarearen helburuen esparruan, eta ahal izanez gero borondatezko akordioetan oinarrituz, Parke Nazionalen Sarean ondare publikoaren gehikuntza eta finkapena sustatzea.
- l) Parke nazionalen eragin sozioekonomikoaren eremuetan garapen jasangarria aktiboki laguntzea.
- m) Nazioarteko sare baliokideetan Espainia ordezkatzeko, beren ekimenetan parte hartuz, eta nazioarteko lankidetzarako mekanismoak ezartzeko, Sarearen kanpo-proiektzioa lortu ahal izateko, bere eskumenen eremuan.
- n) Parke nazionalen kanpo-presentzia koordinatzea eta elkarlanerako programak eta sendetze-programak garatzea.
- o) Gizarte-eragileak inplika daitezkeen eta gizarteak Sarearen helburuen lorpenean parte har dezaten laguntzea, gizartean parke nazionalen balioak zabalduz, horrela parkearen kontserbazioari buruzko gizarte-kontzientzia aktiboa, aldekoa eta konpromisozkoa sortzeko.
- p) Araudi orokorrak eta arloko araudiak esleitzen dizkieten bestelako eskumenak erabiltzea.

2. Hiru urtean behin, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Parke Nazionalen Sarearen egoerari buruzko txostena egingo du, eta, Sarearen Kontseiluak txostena egin ostean, Senatuari helaraziko dio eta publiko egingo da. Txosten horrek parke nazional bakoitzaren egoerari buruzko eranskin bat edukiko du, parke nazional bakoitza kudeatzen duen administrazioak egindakoa.

17. artikulua. *Sarearen irudi korporatiboa eta nortasun grafikoa.*

Gobernuak, errege-dekretu bidez, eta Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluak txostena egin ondoren, Sarearen irudi korporatiboa eta nortasun grafikoa ezarriko ditu, baliabide materialak eta langileen jantziak barne. Jantzi horiek derrigorrean erabili beharko dituzte, gutxienez, jendearekin harremanetan izatea eskatzen duten zereginak betetzen dituzten Sareko langileek.

Parke nazionalen informazio-seinaleak bakarrak, derrigorrezkoak, eskusiboak eta irisgarriak izango dira. Zehazki, gune bat parke nazional deklaratzeko, kendu egin beharko dira parke nazional deklaratu baino lehen egon zitezkeen araubide zinegetikoari buruzko seinaleak, dagozkion eskubideak berreskuratzen diren heinean, bere deklarazio-legeak ezarritako epearen eta 7.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

IV. TITULUA

Plangintza-tresnak

18. artikulua. *Plangintza-tresnak.*

Plangintza-tresnak hauek dira: titulu honetan aipatzen diren Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plana eta erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak, eta, halaber, autonomia-erkidegoek beren eskumenen eremuan adosten dituzten planak, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planekoa baino azalpen zehatzagoa behar duten jardueraren eremuetarako.

19. artikulua. *Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plana.*

1. Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plana gune hauek planifikatu eta antolatzeko oinarritzeko tresna goren da, eta gutxienez honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Parke nazionalak kontserbazioaren, erabilera publikoaren, ikerketaren, segimenduaren, trebakuntzaren eta sentsibilizazioaren arloan dauzkaten helburu estrategikoak.

b) Elkarlanaren eta lankidetzaren arloan, Estatuan eta nazioartean lortu beharreko helburuak.

c) Parke nazionalen irudi korporatiboa eta barne-koherentzia mantendu, sustatu eta bultzatzeko beharrezko jarduketak.

d) Planifikatu, kontserbatu eta koordinatzeko oinarrizko ildoak.

e) Sareko jarduketa komunaren programa eta horien segimendu etengabea eta ebaluazioa burutzeko prozedurak.

f) Estatuaren finantzaketa jaso dezaketen interes orokorreko proiektuak hautatzeko irizpideak.

g) Parke nazional bakoitzak denboran mantendu beharreko oinarrizko kontserbazio-eta kudeaketa-maila zehazteko irizpideak eta segimendua egiteko erabiliko diren parametroak.

h) Parke nazionalaren integritate eta segurtasunerako arrisku larria dagoela zehazteko irizpideak eta, halaber, aitortutako larrialdi-egoeretan jarduteko ildoak.

2. Zuzentzeko Planak ingurune naturala babesteko legediaren arabeko ildo-izaera izango du eta gehienez ere hamar urteko indarraldia izango du. Urtero, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak Zuzentzeko Planaren betearazpenari buruzko txostena sartuko du Sarearen txostenean.

3. Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plana Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egingo du eta errege-dekretuz onetsiko da, Sarearen Kontseiluak txostena egin ostean. Plana egiteko eta berrikusteko, partaidetza publikoaren prozedura bat jarraituko da; prozedura horretan, gutxienez autonomia-erkidegoek eta parke nazionalak patronatuek hartuko dute parte.

20. artikulua. *Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak.*

1. Parke nazional bakoitzean, gune hori kudeatu eta planifikatzeko eskumena duen administrazio-organismoak egingo eta onetsiko du Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana, eta horixe izango da plangintzarako ohiko tresna. Plan horiek aldizka berrikusiko dira eta parkea erabili eta kudeatzeko arau orokorrak jasoko dituzte.

2. Hirigintzaren arloan eskumena duten administrazioek planen inguruko nahitaezko txostena egingo dute, horiek onetsi edo berrikusi baino lehen.

3. Parke naturala autonomia-erkidegoak gaindikoa baldin bada, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak, autonomia-erkidego bakoitzaren onespina jaso baino lehen, dagokion Koordinazio Batzordearen nahitaezko txostena beharko du.

4. Zuzentzeko planak nagusitu egingo zaizkio hirigintza-plangintzari. Zuzentzeko planetan jasotako xedapenak indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin bateraezinak direnean, eskudun organoek ofizioz berrikusiko dute azken hori.

5. Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planera egokituko dira, eta honako informazio hau bilduko dute, gutxienez:

a) Parkea erabiltzeko eta antolatzeko arauak, helburuak, jarduera-lerroak eta irizpide orokorrak.

b) Parkearen eremukako banaketa, erabilera-eremu bakoitza mugatuz eta horietako bakoitzean aplikatu beharreko araudia zehaztuz, Zuzentzeko Planean ezartzen diren eremu moten arabera.

c) Parkearen helburuak lortzeko behar diren jarduketan zehaztapena eta programazioa; besteak beste, arloetan: kontserbazioa, erabilera publikoa, ikerketa eta ingurumen-hezkuntza.

d) Planaren indarraldirako programatutako azpiegituren eta kontserbazio, ikerketa eta erabilera publikoko ekintzei dagozkien inbertsioen zenbatespen ekonomikoa.

e) Parkearen kontserbazio eta kudeaketarekin bateragarriak eta bateraezinak diren jardueren zerrenda. Bateragarrien barnean, bereizi egin beharko dira, batetik, gunea kudeatzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren jarduerak, eta, bestetik, titular eta jabeekin elkarlanean aritzeko tresnak, integratzeko, birformulatzeko edo, hala balegokio, kalte-ordaina emateko.

f) Parke nazionalen dauden landare-formazio exotikoak desagerrarazteko eta espezie inbaditzaileak errotik kentzeko irizpideak.

g) Parke nazionalen beste herri-administrazio batzuek gauza ditzaketen ekintzak integratu eta koordinatzeko neurriak.

h) Parketik kanpora garatzen diren jarduera bateraezinei aurre egiteko prebentzio-neurriak eta hondamendi naturalak edo giza jarduerak eragindako hondamendiak aurreikusteko neurriak.

6. Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planek honako informazio hau ere bil dezakete:

a) Parke nazionalaren kudeaketarekin lotutako horniduren, langileen, baliabide materialen eta tresnertzako lekua.

b) Parke nazionalaren lurralde-integrazioaren esparruan, hala balegokio, ekimen pribatuaren bidez abiaraziko diren jarduera ekonomikoen programa.

c) Inguruko jarduera tradizionala eta garapen ekonomikoa parke nazionalaren kontserbazioarekin bateragarri egiteko neurriak.

7. Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak egiteko prozeduran, nahitaezkoak izango dira interesdunei entzunaldia emateko, jendaurrean informazioa emateko eta eraginpeko herri-administrazioei kontsulta egiteko izapideak, baita Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluaren eta Patronatuaren aurretiko txostenak ere.

8. Parke Nazional deklaraturakoa subiranotasun edo jurisdikzio nazionalaren pean dauden itsas uretan badago, arrantza-baliabideak babesteko araubidea dagokien erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planen esparruan erregulatuko da; Nazioko Gobernuak onetsiko ditu plan horiek, arrantza-administrazioaren partaidetzarekin.

9. Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak urteko lan eta inbertsioen planen bidez garatuko dira, bai eta eskudun administrazioek onetsitako eta autonomia-erkidegoko legedian aurreikusita dauden beste plangintza eta kudeaketarako tresna batzuen bidez ere; Patronatuak horiei buruzko txostena egingo du.

10. Obra-, lan- edo aprobetxamendu-proiekturen bat Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean edo bere berrikuspenetan agertzen ez bada, baina parke nazionalen gauzatzea beharrezkotzat jotzen bada, behar bezala justifikatu beharko da, Planeko gidalerroak kontuan hartuz, eta dagokion kudeaketa-organoaren baimena beharko du, Patronatuak txostena egin ostean.

11. Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planek gutxienez hamar urteko indarraldia izango dute.

V. TITULUA

Kudeaketa

21. artikulua. *Parke nazionalak kudeatzea.*

1. Parke nazionalak kudeatzea eta antolatzea parke horiek dauden lurraldeko autonomia-erkidegoei dagokie zuzenean, baita itsasoko-lehorrekoak ere, lehorreko ekosistemak itsasoan jarraipen ekologikoa baldin badu, eta jarraipen hori ebidentzia zientifiko onenak bermatzen duenean eta deklarazio-legean berariaz horrela aitortuta dagoenean.

2. Subiranotasun edo jurisdikzio nazionalaren pean dauden itsas uretan deklaraturakoa parke nazionalak kudeatzea Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio.

3. Parke nazionala bi autonomia-erkidegoren edo gehiagoren lurraldean badago, Nazioko Gobernuak eta autonomia-erkidego horietako gobernu-organismoek akordioak izenpetu ahal izango dituzte, lege honetan autonomia-erkidego bakoitzeko lurraldeei buruz xedatutakoa osatzen duten kudeaketa- eta administrazio-formulak ezartzeko.

4. Parke nazionalak mugaz gaindiko lurraldeetan badaude, hirugarren herrialdeetako beste gune babestuen mugakide izanik, eta beraien artean elkarlanerako araubidea ezartzen bada, Estatuko Administrazio Orokorrek izango du garatu daitekeen jarduera komuna eta ezarri daitekeen nazioarteko araubidea oro har koordinatzeko eginkizuna, baita parke nazionala kanpoan instituzionalki ordezkatzekoa ere.

22. artikulua. *Kontserbazio-egoera txarra den kasuetan esku hartzea.*

1. Eskura dagoen informazioaren arabera, Estatuko Administrazio Orokorrek parke nazionala kontserbazio-egoera txarrean dagoela adierazten duten datu sendoak baditu eta koordinazio-mekanismoak ez badira eraginkorrak parke horren kontserbazioa bermatzeko, salbuespen gisa, eta parke nazionala deklaratzeko eragin zuten sistema naturaletan kalte konponezinak saihesteko, Estatuko Administrazio Orokorrek lege honen helburuak beteko direla eta parke nazionala behar bezala kontserbatuko dela ziurtatzeko ezinbesteko neurriak hartu eta ekintzak bultzatu ahal izango ditu unean-unean, modu zehatz eta berezian, eraginpeko autonomia-erkidegoari edo autonomia-erkidegoei entzun ondoren.

Estatuko Administrazio Orokorrek esku hartu baino lehen, autonomia-erkidegoari edo autonomia-erkidegoei errekerimendu formalak egingo zaie, sei hilabeteko epean aurreko lerrokadan aipatzen diren neurriak hartzeko edo ekintzak bultzatzeko.

2. Neurri eta ekintza horiek hartu eta bultzatu ondoren, Parke Nazionalen Sarearen Kontseilua premiaz deituko da, neurri eta ekintza horiek eragin dituzten inguruabarren berri jaso dezan.

3. Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planak zehaztuko du gutxienez zein baldintza bete behar diren kontserbazio-egoera txarra dela erabakitzeko.

23. artikulua. *Parke Nazionalen Sarea kudeatzea.*

1. Estatuko Administrazio Orokorri dagokio Parke Nazionalen Sarea kudeatzea, eta, Lankidetzaren eta Koordinaziorako Komitearen eta Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluaren esparruan, jarduera-koherentzia egokia ziurtatuko du parke nazionalen eta Parke Nazionalen Sarearen esparru orokorraren artean.

2. Parke Nazionalen Sareak, bere jarduerak gauzatzeko, jardueren hainbat urtetarako programazioa edukiko du. Programazio horrek Zuzentzeko Planeko jarraibide eta gidalerroak hartuko ditu kontuan, bereziki.

3. Parke nazionalak kudeatzen dituzten administrazioek etengabe eman beharko diote informazioa Parke Nazionalak Erakunde Autonomoari; bereziki, urteko txostenak egiteko eta Parke Nazionalen Sarearen egoerari buruzko hiru urtean behingo txostenak egiteko; horrez gain, beharrezkoa den informazioa emango dute Sarearen Kontseiluaren bileretarako, Sarearen segimendua eta ebaluazioa egin ahal izateko, eta Estatuko Administrazio Orokorrek bere eskumenekoak diren nazioarteko ordezkari-funtzioak betetzeko.

VI. TITULUA

Organo aholku-emaileak, lankidetzarako organoak eta koordinaziorako organoak

24. artikulua. *Patronatuak.*

1. Parke nazionalen interesean ezarritako arauak betetzen direla zaintzeko, eta gizarteak parke horietan parte hartzeko organo gisa, Patronatu bat sortuko da parke bakoitzerako, lehendik egon daitekeen edozein partaidetza-organotatik bereiz. Patronatu horretan, inplikaturik dauden herri-administrazioak egongo dira ordezkaturik, baita beste

hauek ere: eragindako toki-erakundeak, inguruko gizarte-eragileak, parke nazionalaren barnean jarduera ekonomikoak garatzen dituzten eragileak, parkeko lursailen jabe publiko eta pribatuak, eta parkearekin lotutako instituzio, elkarte eta erakundeak, edo lege honen xedeekin bat datozen helburuak dituztenak. Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek hautatutako ordezkari-kopurua paritarioa izango da. Parke nazionala bi autonomia-erkidegoren edo gehiagoren lurraldean badago, Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidego interesdunen multzoak izendatutako ordezkari-kopuruak paritarioa izaten jarraituko du.

2. Parke nazionalerako patronatuak parke nazionala dagoen autonomia-erkidegora atxikita egongo dira, administrazio-xedeetarako. Hainbat autonomia-erkidegotan kokatutako parkeek elkarren arteko adostasunez xedatuko dute Patronatuaren atxikipena. Parke Nazional deklaraturakoa subiranotasun edo jurisdikzio nazionalaren pean dauden itsas uretan badago, Patronatua Estatuko Administrazio Orokorrera atxikita egongo da, eta berak zehaztuko du Patronatuaren osaera.

3. Patronatu bakoitzaren osaera, jarduteko araubidea eta bertako presidentearen izendapena erabakitzea atxikita dagoen administrazioaren eskumena izango da. Parkearen zuzendari-kontserbatzailea Patronatuko kidea izango da.

4. Hierarkikoki gainean dituzten administrazioek esleitzen diren beste funtzio batzuk alde batera utzita, honako hauek dira Patronatuen funtzioak:

a) Parke nazionalari dagozkion arauak ezagutzeko eta arauak betetzen direla aktiboki zaintzea.

b) Babestutako gunearen alde, egokitzeak jotzen dituen jarduketak guztiak bultzatu, sustatu eta gauzatzeko.

c) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planari eta horren aldaketei buruzko txostenak egitea, baita lan- eta inbertsio-plangintzei buruzkoak ere, edo horretatik eratorritako edozein sektore-garapeni buruzkoak ere.

d) Urteko jarduera-programazioa betetzeko eskumena duten administrazioek aurkeztu beharreko programazioari buruzko txostena egitea.

e) Parke nazionalaren urteko aurrekontuari buruzko txostena egitea, dagokion ekitaldia baino lehen. Txostenean, burutu beharreko jarduerak, jarduketak beteko dituen erakundeak eta jarduketak finantzatzeko duen administrazioa zehaztuko dira.

f) Jarduerari eta emaitzei buruzko urteko txostena onartzea, eta disfuntzioak zuzentzeko edo kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak proposatzea.

g) Parke Nazionalan egin nahi diren obra eta lanen proiektu zein proposamenei buruzko txostenak egitea, obra eta lan horiek ez daudenean lan- eta inbertsio-plangintzetan jasota.

h) Eragin sozioekonomikoaren eremuan egitekoak diren eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargura finantzatzeko diren diru-laguntza deialdietara aurkeztutako eskaerei buruzko txostenak egitea.

i) Parke Nazionalaren inguruan garatzen diren proiektuei buruzko txostenak egitea, bertan eragin esanguratsua izango dutela edo bertako balio naturalei eragingo dietela aurreikusten bada.

j) Parke nazionalaren balizko aldaketei buruzko txostenak egitea.

k) Parke Nazionalaren balioak modu ahalik eta eraginkorrean defendatzeko arauak eta jarduerak proposatzea.

l) Barne-araubideari buruzko bere erregelamendua ezartzea.

25. artikulua. *Parke Nazionalen Lankidetzaren eta Koordinazioaren Komitea.*

1. Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, Parke Nazionalen Lankidetzaren eta Koordinazioaren Komitea eratuko da, eta honako xede hauek izango ditu: lankidetzaren eta koordinazioaren mekanismoetan sakontzea, egon daitezkeen eragin komunak aztertzea, parke nazionalaren programa eta jarduketaren abiarazteko adostea, informazioa eta esperientziak trukatzeko, eta parke nazionalaren ezagutzaren hedapena errazteko.

2. Komitearen osaera, zereginak eta jarduteko araubidea erregelamendu bidez garatuko dira. Nolanahi ere, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoko zuzendaria izango da Parke Nazionalen Lankidetzeta eta Koordinaziorako Komiteko burua, eta autonomia-erkidego bakoitzak izendatutako parke nazional bakoitzeko arduradunak izango dira bertako kide. Komiteko idazkaria Parke Nazionalak Erakunde Autonomoko funtzionario bat izango da.

26. artikulua. *Koordinazio-batzordeak.*

1. Autonomia-erkidegoaz gaindiko parke nazional bakoitzean Koordinazio Batzorde bat eratuko da, autonomia-erkidego bakoitzaren kudeaketa-jarduera modu egokienean integratzeko xedearekin. Batzorde honen esparruan, Estatuko Administrazio Orokorrak jarduketak eta erabakiak koordinatuko ditu, inplikatura dauden administrazioen erantzukizun partekatua eta multzoaren koherentzia ziurtatzeko. Eskudun administrazioak egingo ditu jarduketak eta hartuko ditu erabakiak, eta Koordinazio Batzordeak ezin izango du parkearen kudeaketa bere gain hartu, ez kasu zehatzetarako, ezta oro har ere.

2. Koordinazio-batzordeek osaera paritarioa izango dute; kopuru berean izango dira Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroak izendatuko dituela, eta parke nazionalen kudeaketan eskumena duten herri-administrazioen ordezkariak. Horretarako, autonomia-erkidego bakoitzak gehienez ere bi ordezkari izendatuko ditu koordinazio-batzorde bakoitzeko.

3. Koordinazio-batzordeko burua Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroak izendatuko du Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkarien artean, eta administrazio autonomikoen ordezkari batek jardungo du idazkari gisa.

4. Koordinazio Batzordeak gutxienez urtean bi aldiz egingo du ohiko bilera, eta aldeetako batek eskatzen duen guztietan elkartuko da. Batzordea baliozki eratuta geratuko da inplikatura dauden administrazioek ordezkariak izendatu eta Estatuko Administrazio Orokorraren ekimenez lehenengo bilera egiten den unean.

5. Hauek dira Koordinazio Batzordearen zereginak:

a) Parke nazionalen oinarriko helburuen lorpena zaintzea; bereziki, haietako balio naturalak kontserbatzea, informazioa trukatzu eta bakoitzari dagozkion eskumenak gauzatzerakoan harmonia dagoela ziurtatuz.

b) Administrazio bakoitzak beren eskura dituen eragin orokorreko dokumentuak aztertzea, administrazioen jardueran modu harmonikoan integratzen direla ziurtatzeko.

c) Eskudun herri-administrazioei beharrezkotzat jotzen diren elkarlanerako hitzarmenak proposatzea, parke nazionala kontserbatzeko burutu behar diren jarduketak gauzatzeko.

d) Administrazioen artean izenpetutako elkarlanerako hitzarmenetan segimendu-batzorde gisa jardutea.

e) Batzordearen kanpoko nortasun-zeinuen erabilera egokia koordinatzea.

f) Garapen jasangarriari buruzko programak, lurralde-kohesioko jarduketak zein parke nazionalerako eragin sozioekonomikoaren eremuetan laguntza eta diru-laguntzen banaketa-proposamenak ezagutu, txostena egin eta aztertzea.

g) Patronatuari aurkeztu behar zaion urteko jarduera-txostenaren edukia ezagutzea eta aztertzea, bai eta Sarearen Kontseiluari aurkeztu behar zaion helburu orokorren urteko betearazpen-txostena ere, eta Parke Nazionalen Sareko gainerako parkeekin koordinatzea.

h) Elkarlan eta laguntzarako araubidea ezagutzea eta titular zein jabeekin batera koordinatzea.

i) Parke nazionalaren mugak aldatzeko proposamenen inguruko txostena egitea.

j) Parke nazionalaren helburuak hobeto betetzeko herri-administrazioek adostutako eta beharrezkotzat jotzen diren jarduketa guztiak koordinatzea.

27. artikulua. *Parke Nazionalen Sarearen Kontseilua.*

1. Sarearen Kontseilua kide anitzeko organo aholku-emailea da eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioari atxikita dago.

2. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroa izango da Parke Nazionalen Sarearen Kontseiluko presidentea. Organo horren osaera eta jarduteko modua erregelamenduz zehaztuko dira, inplikaturik dauden autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren.

3. Hauek izango dira Sarearen Kontseiluko kideak: Estatuko Administrazio Orokorra, parke nazionalak dauden lurraldeetako autonomia-erkidegoak, parke nazionalen eragin sozioekonomikoaren eremuan dauden udalerrien ordezkari bat, Patronatu etako presidentek, Komite Zientifikoaren ordezkariak, ingurumenaren babesarekin lotutako helburuak dituzten eta Estatuan jarduten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen ordezkari bat, lurralde nazionalen adierazgarrien diren nekazaritza-, arrantza-, enpresa- eta sindikatu-erakundeen ordezkari bat, eta parke nazionalen barnean dauden lursailen jabe-elkarteen ordezkari bat.

Batzordearen bileretara beren lurraldean parke nazionala deklaratzeko interesa duten gainerako autonomia-erkidegoen ordezkariak joan ahal izango dira, presidentek gonbidatuta; hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa ematekoa ez.

4. Sarearen Kontseiluak honako hauei buruzko txostena emango du:

a) Parke nazional berriak deklaratzeko proposamenei buruzkoa edo lehendik dauden parkeen aldaketa-proposamenari buruzkoa.

b) Parke nazional baten deklarazioa errebokatzeko proposamenari buruzkoa.

c) Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planari eta bere berrikuspenei buruzkoa.

d) Parke nazionalen zuzenean eragiten dieten xedapen-proiektuei buruzkoa.

e) Parke nazionalen aplikatzeko den araudi orokorrari buruzkoa.

f) Estatuaren Aurrekontu Orokorretan Parke Nazionalen Sarearen jarduketaren programarako esleitutako finantza-baliabideak banatzeko irizpideei buruzkoa.

g) Parke Nazionalen Sarearen urteko txostenari buruzkoa, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioari onetsi dezan aurkeztu baino lehen.

h) Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak Senatuari igorri beharreko Parke Nazionalen Sarearen egoerari buruzko hiru urtean behingo txostenari buruzkoa.

i) Parke Nazionalen Sareko parkeetarako nazioarteko sariak eskatzeko proposamenari buruzkoa eta parke nazionalen nazioarteko sustapenari buruzkoa.

j) Parke nazionalen Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planari buruzkoa, onetsi baino lehen.

k) Sarearentzat interes orokorrekoak diren gainerako gaien buruzkoa, hala eskatzen zaionean.

28. artikulua. *Parke nazionalen Komite Zientifikoa.*

1. Organo zientifiko aholku-emaile gisa, parke nazionalen Komite Zientifikoa sortzen da, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoari atxikita.

2. Komitearen zeregin orokorra Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren Zuzendaritzatik helarazten zaion edozein gairi buruz zientifikoki aholkatzea izango da; aipatutako Zuzendaritzak bere ekimenez egin ahalko dio kontsulta, edota parke nazionalak kudeatzen dituzten administrazioek eskatuta. Komiteak, zehazki, honako zeregin hauek beteko ditu:

a) Parke Nazionalen Sarearen Ikerketa Programa eta bere berrikuspenak egiterakoan aholkua ematea.

b) Parke Nazionalen Sarearekin lotutako gaietan, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoak sustatzen dituen ikerketarako laguntza-deialdi publikoen bidez diruz lagundutako proiektuak eta horien berrikuspenak ebaluatzeko, hautatzeko eta segimendua egiteko prozesuetan parte hartzea.

c) Edozein parke nazionalen kontserbazio-egoera txarra dela zehaztu baino lehen, txostena egitea. Txostenean, parkeetako sistema naturalen, eraketa geologikoen eta landare-eraketen eta espezie berezien eboluzioa baloratuko du, eta dagozkion parametroen ezarpenetik ondorioztatzen diren balioen garrantzia ebaluatuko du, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoak edo administrazio kudeatzaileek eskatuta.

d) Parke Nazionalen Sareari kontserbazio-egoera zehazteko aplikatzekoak diren adierazle-sistemei buruzko txostena egitea. Adierazle-sistemak Lankidetzak eta Koordinaziorako Komitearen barnean adostu beharko dira, eta Estatuan zein nazioartean ezartzen diren adierazle-sistemetan oinarrituta egon beharko dira.

3. Komite Zientifikoaren osaera eta jarduteko modua ministro-aginduz ezarriko dira. Dena dela, bertako kide izango dira Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren zuzendaria, zeina Komite Zientifikoaren presidentea izango den, eta naturagune babestuen ikerketan ibilbide profesional aintzatetsia duten hainbat zientzialari. Bere lurraldean parke nazional bat duen autonomia-erkidego bakoitzeko, kide bat izendatuko da, ministro-agindua ezartzen duen eran, eta dagokion autonomia-erkidegoak egindako proposamenari jarraiki.

VII. TITULUA

Ekintza itunduak

29. artikulua. *Lankidetzarako tresnak.*

1. Herri-administrazioek, lege honen ezarpena bermatzeko, elkarri informazioa emateko, lankidetzan jarduteko eta elkarlanean aritzeko printzipioetara egokituko dituzte beren jarduketak. Zehazki, beren jarduketan eraginkortasuna eta koherentzia ziurtatzeko beharrezko laguntza eman beharko diote elkarri; bereziki, parke nazionalen babes egokia arriskuan jartzen den kasuetan. Horretarako, administrazioek beren helburuen lorpena ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten lankidetzak eta elkarlanerako tresna guztiak ezarriko dituzte, denek artean adostuta.

2. Oro har, administrazioen arteko elkarlana horretarako izenpetutako elkarlanerako hitzarmenen bidez xedatuko da, aldeek artean adosten dituzten jarduketak bereziak gauzatzeko.

3. Parke Nazionalak Erakunde Autonomoak, parke nazionalaren eremuan dauden finken titular gisa, eta parkea kudeatzen duen administrazioak egokituz jotzen dituzten elkarlanerako hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte, parke nazional osoan kudeaketa integratua ziurtatzeko.

30. artikulua. *Finantza-lankidetzak.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrek 16. artikuluan xedatutako funtzioak gauzatu eta finantzatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko ditu, eta, bereziki, ekintza berezi, zehatz eta apartekoak gauzatzeko behar direnak, bai eta, autonomia-erkidegoekin elkarlanean, Sareko jarduera-programa komun eta horizontalak ere.

2. Estatuko Administrazio Orokorrek eta autonomia-erkidegoek finantza-lankidetzarako tresnak adostu ahal izango dituzte, beren eskumenen eremuan biek elkarrentzat egokituz jotzen dituzten laguntza-baldintzetan.

3. Era berean, alde anitzeko jarduera-programak abiaraztea hitzartu ahal izango dute, baldin eta borondate-tasun-printzipioa errespetatzen bada, Sarearen Kontseiluak onartutako lehentasun-irizpideen aplikazioan oinarritzen badira eta Estatuko Administrazio Orokorrek adostasunez identifikatzen diren jarduera berezi eta aparteko finantzaketa bere gain hartzen badu.

4. Estatuko Administrazio Orokorrek, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren bidez, elkarlan publiko-pribatua sustatuko du, Parke Nazionalen Sarearen kudeaketarako ekimen pribatutik eta enpresa-sektoretik eratorritako finantza-baliabide gehigarriak

sartzeko bidea emanaz. Horri dagokionez, Parke Nazionalen Sarearen baliabide eta balioei lotutako sare ekonomikoa eta enplegua sortzeari emango zaio lehentasuna. Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planak ezarriko ditu sektore pribatuarekin lankidetzan aritzeko bildu behar diren gutxienerako irizpideak.

VIII. TITULUA

Lurralde-garapena

31. artikulua. *Eragin sozioekonomikoaren eremuak.*

1. Parke nazional bakoitzean, deklarazio-legeek dagokion eragin sozioekonomikoaren eremua ezarriko dute; eremu horretan, herri-administrazioek garapenerako politika aktiboak burutuko dituzte. Eremu hori parke nazionalari lurraldea ematen dioten udal-mugarteek osatuko dute, eta, salbuespen gisa, baita zuzenean lotutako beste batzuek ere, horretarako arrazoi objektiboak baldin badaude eta deklarazio-legeetan horrela jasotzen bada.

2. Zehazki, itsasoko edo itsasoko-lehorreko parke nazionalan, parkeari lurra eman ez arren kokapen geografikoagatik parkearen alboan dauden udalerrak ere eragin sozioekonomikoaren eremuaren barnean egon ahal izango dira, parkean garatzen diren jarduerekin lotura ekonomiko eta sozial argia badute edo parkeari lotutako instalazio edo azpiegiturak badauzkate.

3. Herri-administrazioek, eragin sozioekonomikoaren eremuak laguntzeko araubideak aplikatzean, modu berezian hartuko dituzte kontuan, kualitatiboki zein kuantitatiboki, parke nazionalari lurra ematen dizkieten udalerrak.

4. Eragin sozioekonomikoaren eremuari arreta berezia eskainiko diote herri-administrazioek, parke nazionala eremuan integratzea ziurtatzeko eta parke nazionalaren inguru dinamizatzeari lotutako jarduera ekonomiko jasangarriak sustatzeko. Horretarako, herri-administrazioek, modu koordinatuan, beharrezko diren jarduerak gauzatu dituzte.

32. artikulua. *Lurralde-garapen jasangarrirako ekintzak.*

1. Herri-administrazioek, beren eskumenen eremuan, eta daukaten aurrekontu-xedagarritasunaren arabera, laguntza tekniko, ekonomiko eta finantzarioak eman ahalko dituzte parke nazionalen eragin sozioekonomikoaren eremuetan, haren garapena sustatzeko.

2. Herri-administrazioek egindako diru-laguntzen programetan, lehentasuna eman ahal izango zaie degradatutako eremuak beren onera ekartzeko ingurumen-jarduketei, bai eta inguruko baliabide naturalen balioa handituko duten gainerako jarduketei ere.

3. Halaber, herri-administrazioek, modu koordinatuan, garapen jasangarrirako planak ezarri ahalko dituzte parke nazionalerako eragin-eremuetarako; horretarako, dagozkion partzuergoak eratu ahal izango dituzte, bai eta inplikaturak dauden gainerako administrazio, instituzio eta taldeekin elkarlanerako hitzarmenak izenpetu ere.

4. Zehazki, Estatuko Administrazio Orokorrek, bere eskumenen eremuan, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren bidez eta autonomia-erkidegoen partaidetzarekin, autonomia jasangarria aktibatuz eta Parke Nazionalen Sare osoan eragin sozial erakusgarria lortzeko jarduketa zehatz berezien programa pilotuak abiarazi ahal izango ditu.

5. Estatuko Administrazio Orokorrek, Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren bidez eta autonomia-erkidegoekin lankidetzan, parke nazionalan inpaktu kaltegarriak minimizatuzko jarduketa-programak abiarazi ahal izango ditu.

6. Estatuko Administrazio Orokorrek, eskura dauzkan informazioan eta autonomia-erkidegoek luzatzen dioten informazioan oinarrituz, lortutako emaitzak ebaluatuzko mekanismo bat garatuko du, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako ekintzen eraginak *a posteriori* balioztatuzko.

33. artikulua. *Tokiko erabilera eta jarduerak integratzea.*

1. Jabeek, erabiltzaileek eta tokiko biztanleek parke nazionalen inguruan historikoki burutu dituzten erabilera eta ohitura tradizionalak, kudeaketarako beharrezkotzat edo kudeaketarekin bateragarritzat aitortutakoak, interes orokorreko aitortua izan den lurraldea konfiguratzeko duten elementuetako zati dira, eta, beraz, funtsezkoak dira parke nazionalen helburuak lortzeko, babestu beharreko funtsezko balioen zati diren aldetik. Hori horrela, parke nazionalen deklarazio-legeetan kontuan hartuko da jarduera tradizionalak modu aktibo eta bideragarrian kontserbatzeak duen garrantzia.

2. Herri-administrazioek jarduera tradizional horiek zaintzeko programa espezifikoak garatuko dituzte eta funtsezko jarduera horiek parke nazionalaren eguneroko jardueran txertatuko dituzte, lurraldea kudeatzeko modu zehatz batean bateratu eta integratzeko tresnak baitira.

3. «Espainiako Parke Nazionalak» markaren garapena sustatuko da, gune horietako ekoizpenetarako kalitatezko identifikatzaile gisa. Marka horren barnean, borondatez bertan sartzeko eskatzen duten parke nazionalak ekoizpenak sartu eta bilduko dira, erregelamendu bidez zehazten diren arau erregulatzailerak betetzen baldin badituzte.

4. Eragin sozioekonomikoaren eremuetako laguntza-programetan, arreta berezia eskainiko zaio jarduera tradizional horietan enplegua sortzeari eta lan- eta gizarte-egonkortasuna bultzatzeari; era berean, jardueren hobekuntza teknologikoa, merkaturatzea eta proiektio soziala sustatuko dira.

IX. TITULUA

Nazioarteko harremanak

34. artikulua. *Nazioarteko presentzia.*

1. Espainiako parke nazionalak munduko baliabide naturalak kontserbatzen laguntzen dute; horregatik, nazioarteko agertokietan sartu behar dira eta haietan alderdi aktibo izan behar dira. Estatuko Administrazio Orokorrak parke nazionalen nazioarteko presentzia eraginkorra ziurtatuko du atzerrian. Horretarako, ondorengo jarduketak garatuko dira:

a) Nazioartean antzeko beste sare batzuekin lankidetzak eta elkarlanerako, esperientziak trukatzeko eta baterako programak garatzeko tresnak ezarriko dira.

b) Nazioarteko lankidetzak-programa ezarriko da, parke nazionalak hirugarren herrialdeetan finkatzen laguntzeko; bereziki, Iberoamerikako esparruan.

c) Ingurune naturalaren kontserbazioarekin eta erabilera jasangarriarekin lotutako nazioarteko sare, erakunde eta instituzioetan parte hartzea ziurtatuko da.

2. Estatuko Administrazio Orokorrak zuzenduko du parke nazionalen kanpoko presentzia, parkeetako bakoitzaren ekintza berezia koordinatuz eta nazioarteko instituzioen aurrean solaskide gisa jardunez. Zentzu horretan, Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak agintari-izaera izango dute Estatuaren ordezkari gisa jardutean, eta inplikaturak dauden gainerako administrazioak ere bertan sartu ahalko dira.

3. Bereziki, parke nazionalen irudia, balioak eta kontserbazio-eredua atzerrian zabaltzeko eta sustatzeko dagokio Estatuko Administrazio Orokorrari. Horretarako, hainbat urtetarako ekintza-programa garatuko da; programa horrek Parke Nazionalak Erakunde Autonomoko presidentearen onospena beharko du, eta Sarearen Kontseiluak txostena egin beharko du aurrez.

X. TITULUA

Gizarte-proiektzioa eta -partaidetza

35. artikulua. *Partaidetza publikoa eta gizartearen inplikazioa.*

Parke nazionalak partaidetza publikoaren eta gizartearen inplikazioaren erreferente orokor izan behar dira, haiek antolatze eta kudeatzeko moduari dagokionez. Kudeaketa-jarduerak eraginpeko udalerrien, sektoreen eta taldeen integrazioa lehenetsi beharko dute eta kokatuta dauden eremuen lurralde-kohesiorako tresna gisa eratu beharko dira. Arreta berezia eskainiko zaio gizartearen inplikazioari, erabakiak hartzerakoan eraginpeko udalerrien partaidetzari eta parke nazionalen barnean bizi diren tokiko biztanleen laguntza bereziari.

36. artikulua. *Eskubideen titularrekin lankidetzan aritzea.*

1. Parke nazionalaren barruan kokatutako lurren jabeek eta horien gaineko bestelako eskubideen titularrek parke nazionalaren kontserbazioan parte hartzea sustatuko dute herri-administrazioek.

Horretarako, parke nazionalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean, parke nazionalan egiten diren jarduerak kontserbazio-helburuekin bateragarriak izatea bermatzeko neurriak zehaztuko dira, baita produktu tradizionalak sustatzeko neurriak ere, eta, halaber, lurren jabeek herri-administrazioei parkea kontserbatzeko neurriak gauzatzen lagundu ahal izateko baldintzak. Xede horretarako, hitzarmenak, akordioak, lurralde-kontratuak edo zuzenbidean gara daitekeen beste edozein elkarlanerako esparru izenpetu ahal izango dute, eta, bertan, alde bakoitzaren konpromisoak jasoko dira.

2. Bereziki, ondare-titularrek jarduera ekonomikoak eta merkataritza-jarduerak garatzeko ahalmena izango dute; batez ere, erabilera publikoarekin eta landa-turismoko jarduerekin lotuta. Jarduera horiek parke nazionalaren baliabide eta balio naturalen oinarritu beharko dira, bai eta horien eskuragarritasun, gozamen, ezagutza eta hedapenean ere, eta baliabide zein balio naturalak kontserbatzen lagunduko dute, parke nazionalaren irudia adostutako moduan erabiliz.

3. Parke nazionalen barneko jabeen eta eskubideen titularren presentzia instituzional egokia ere sustatuko da parke nazionalak gizartearen aurrean proiektatzeko xedez antolatutako ekitaldi, aurkezpen eta jardueretan.

37. artikulua. *Parke nazionaletan zerbitzu-jardueren gaineko emakidak eta baimenak ematea.*

1. Parke nazional batean plangintza- eta kudeaketa-tresnen arabera eskainiko diren zerbitzu-jardueren gaineko emakidak eta baimenak emateko prozedurek publizitate-, objektibotasun-, inpartzialtasun- eta gardentasun-printzipioak errespetatu beharko dituzte. Kasu hauetan, gainera, norgehiagoka-printzipioa ezarriko da:

a) Parke nazionala kudeatzen duen administrazioak sustatutako zerbitzu-jarduera denean, bertako planifikazio- eta kudeaketa-tresnen arabera.

b) Jarduera burutzeak hirugarrenen beste jarduera batzuk ezin burutzea dakarrenean.

2. Zerbitzu-jarduerak egiteko emakidak eta baimenak emateko erabiliko diren irizpideek lotura zuzena izango dute ingurumen-babesarekin.

3. Baimen eta emakida horien iraupena mugatua izango da, eta zerbitzua ematearen ezaugarriekiko proportzionatuta; ez da automatikoki berrituko, eta, iraungitakoan, ez die inolako abantailarik emango ez aurreko titularrari, ez hari lotutako pertsoneri.

38. artikulua. *Informazioa eskuratzea.*

1. Parke nazionalen buruzko informazioa eskuratzeari dagokionez, ingurumen-gaietan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta auzitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean ezarritako araubidea aplikatuko da.

2. Parke nazionaletako plangintza-tresnak egitean, gardentasuna, herritarren partaidetza eta eskuragarritasuna ziurtatuko dira, eta erabakiak behar bezala balioetsitako aukeretan oinarrituz hartuko dira, lege honen helburuak kontuan hartuta.

39. artikulua. *Akzio publikoa.*

Lege honetan, parke nazionalen deklarazio-legeetan eta horiek garatu eta aplikatzeko ematen diren xedapenetan parke nazionalen buruz jasotzen diren aginduak zorrozki bete daitezela eskatzeko administrazio-organoen eta justizia-uzitegien aurrean gauzatzeko akzioa publikoa izango da.

XI. TITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

40. artikulua. *Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.*

Parke nazionalen aplikatzeko zehapen-araubidea ingurune naturala babesteari buruzko legedian ezarritakoa izango da. Halaber, parke nazionalen deklarazio-legeek zehapen-araubide zehatza ezarriko dute.

Nolanahi ere, naturagune babestuetako legediaren zehapen-araubide osagarria parke nazional zehatz batean gertatzen diren edo parkean eragina duten portaerei dagokien arau-hauste eta zehapenei aplikatuko zaie, dagokion deklarazio-legean tipifikatuta egon ez arren.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Sarean dauden parke nazionalak.*

Deklaratutako parke nazional hauek osatzen dute Sarea: Ordesa eta Monte Perdido Parke Nazionala, Aigüestortes i Estany Sant Maurici Parke Nazionala, Europako Mendietako Parke Nazionala, Galiziako Uharte Atlantikoetako itsasoko-lehorreko Parke Nazionala, Cabrera Uhartediko itsasoko-lehorreko Parke Nazionala, Cabañerosko Parke Nazionala, Tablas de Daimieleko Parke Nazionala, Monfragüeko Parke Nazionala, Sierra Nevadako Parke Nazionala, Doñanako Parke Nazionala, Timanfayako Parke Nazionala, Teideko Parke Nazionala, Caldera de Taburienteko Parke Nazionala, Garajonayko Parke Nazionala eta Guadarrama Mendilerroko Parke Nazionala.

Gorte Nagusiek deklaraturako parke nazional berri oro automatikoki sartuko da Parke Nazionalen Sarean.

Bigarren xedapen gehigarria. *Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plana berrikustea eta egungoaren indarraldia luzatzea.*

Lege hau indarrean sartu eta bi urteko epean, Gobernuak Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plan berria onetsiko du. Plan berri hori onetsi arte, indarrean jarraituko du azaroaren 27ko 1803/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planak.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Parke nazionalen erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak berrikustea eta plan horiek Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planera egokitzea.*

Administrazio eskudunek onetsitako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak berrikusiko dituzte, dagozkien Zuzentzeko Planen edukira egokitzeko, azken plan horiek onesten direnetik bi urteko epean.

Laugarren xedapen gehigarria. *Kalte-ordainak emateko araubidea.*

Herri-administrazioek kalte-ordainak ordaindu beharko dituzte parke nazionaletan ezarritako legezko ondasunak eta ondare-eskubideak mugatzeagatik. Estatuko Administrazio Orokorrari egokitu zaien gaiari buruzko oinarriko legedian eta Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Planean jasotako kalte-ordainak ordaintzea. Gainerako mugaketek eragindako kalte-ordainak autonomia-erkidegoek ordainduko dituzte. Itsas uren gainean deklaratu diren parke nazionaletan sortu daitezkeen kalte-ordainak Estatuak edo bere menpeko erakundeek edo erakunde lotuek bakarrik ordainduko dituzte.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Estatuaren eskumenak baliatzea.*

Parke Nazionalak Erakunde Autonomoak lege honetan Estatu Administrazio Orokorrari esleitzen zaizkion eskumenak baliatuko ditu, kalterik egin gabe legedi orokorrak edo arloko legediak Estatu Administrazio Orokorraren beste organo batzuei edo berari lotutako edo mendeko erakundeei esleitutako beste eskumenei.

Seigarren xedapen gehigarria. *Bitarteko elektronikoko erabiltzea.*

Lege honetan aurreikusitako kide anitzeko organoen arauketak bitarteko elektronikoen erabilera ezarri beharko du esleitura dauzkaten zereginak burutzeko, Herritarrek zerbitzu publikoak modu elektronikoa erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen den baimenaren arabera.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Lehendik dauden parke nazionalak lege honetara egokitzea.*

1. Herri-administrazioek, lege hau indarrean sartzetik hasita gehienez ere sei urteko epean, beharrezko neurriak hartuko dituzte lege hau indarrean sartzeko parke nazional deklaratu zirenen egoera legearen 6. eta 7. artikuluetako zehaztapenetara egokitzeko, 6.1.c) artikuluan ezarritako gutxiengo azalerei buruzkoa izan ezik. Egokitzapenak hirugarrenen eskubideetan eragina baldin badu, herri-administrazioek borondatezko akordioak gauzatu behar dituzte, edo, akordiorik ezean, jabetza nahitaez kentzeko edo dagozkien eskubideen erreskaterako prozedurak aplikatuko dituzte.

Gauzatu diren borondatezko akordioak parke nazional bakoitza kudeatzen duen herri-administrazioak landutako irizpide teknikoetan oinarrituta egin beharko dira, jabeen partaidetzarekin.

Parkeen erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planen borondatezko akordioak edukia jasoko dute beti.

Lege hau indarrean sartu baino lehen egindako borondatezko akordioek indarrean jarraituko dute, horietan xedatutako baldintzetan.

2. Europako Mendietako eta Monfragüeko parke nazionaletan, barnean hiriguneak dauzkatenek, ez da aplikatuko 6.2 eta 7.6 artikuluetan ezarritakoa. Hirigune horietan, hirigintzako plan eta arauak hiriguneak dauden parke nazionalen deklarazio-legeetan xedatutakoari meneratuko zaizkio.

3. Lege hau indarrean sartu baino lehen deklaratuak diren parke nazionaletako eragin sozioekonomikoaren eremuetan ez da aldaketarik egingo, eremu horiek osatzen dituzten udalerriei dagokienez.

4. Parke nazionaletakoin seinaletapena egokitzeko lanak eta, bereziki, dagoeneko iraungitako aurreko araubide zinegetikoei buruzko seinaleak kentzeko zereginak, urtebeteko epean egingo dira, 17. artikuluan aurreikusitako irudi korporatibo berria onesten den egunetik zenbatzen hasita.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Parke nazionaletatik kanpo dauden Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren finkak.*

Parke Nazionalak Erakunde Autonomoari atxikitako edo haren jabetzako finkak, parke nazionalen eremuen barruan ez daudenean, parkeko balio naturalekin eta esleituta dituzten instituzio-helburuekin bat datozen moduan kudeatuko dira ingurumenaren aldetik.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Organo berriak sortzea eta jarduteko modua.*

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioari atxikitako aurrekontuarekin, langileekin eta bitarteko teknikoekin sortuko dira organo berriak, eta horien arabera jardungo dute.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikora egokitzea.*

Lege honetan aurreikusitako jarduerak, diru-sarrera eta gastu publikoetan eragina izan dezaketenek, aurrekontu-egonkortasun eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak bete beharko dituzte, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Defentsa Nazionalaren eskakizunek eragindako eremuak edo Ministroen Kontseiluaren Akordio bidez aintzat hartzen diren interes publikoko lehen mailako premiazko beste arrazoi batzuk biltzen dituzten eremuak.*

Defentsa Nazionalari atxikitako lursail, eraikin eta instalazioei zein horien babes-eremuei eragiten dieten parke nazionalen deklaraziorako ekimenak gauzatzeko proposamenei Defentsa Ministerioaren nahitaezko txosten bat beharko dute, eragin horri dagokionez, onetsiak izan aurretik. Halaber, eta lege honetan aurreikusitako plangintza-tresnetan gorabehera hori gertatzen bada, Defentsa Ministerioari txostena eskatu beharko zaio, Parke Nazionalen Sarea Zuzentzeko Plana eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak izapidetzean. Txostena loteslea izango da Gobernuak onetsi beharrekoak ez diren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak izapidetzean.

Defentsa Nazionalerako Interesezkoak diren Eremu eta Instalazioei buruzko martxoaren 12ko 8/1975 Legearen 5. eta 6. artikuluek Ministroen Kontseiluari ematen dizkioten ahalmenei kalterik egin gabe, erregelamenduzko ingurumeneko plangintza-tresnen edukia ezeztatu edo eduki guztia edo horren zati bat biltzen ez duten arloko jarduketak, planak edo programak burutu ahalko dira, kasu bakoitzari dagokion moduan, Ministroen Kontseiluaren akordio bidez behar bezala arrazoitutako interes publikoko lehen mailako premiazko arrazoi batzuk baldin badaude.

Lege honetan xedatutakoa gorabehera, eta Defentsa Nazionalaren azaroaren 17ko 5/2005 Lege Organikoaren 30. artikuluan xedatutakoarekin bat, beren legedian ezarritako helburuetara lotuta daude Defentsa Ministerioari edo Indar Armatuaren erabilerrari atxikitako ondasunak eta horren menpe dauden erakunde publikoen eskura jarritako ondasunak, baita interes militarreko aitortutako instalazio militar edo zibilen segurtasun-eremua osatzen dutenak ere.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Itsas uretan dauden parke nazionalak.*

Subiranotasun edo jurisdikzio nazionalaren pean dauden itsas uretako parke nazionalen proposamenei dagokienez, Sustapen Ministerioari gai hauen inguruko txostena eskatuko zaio: itsas segurtasuna, nabigazioa, itsasoko giza bizitza, itsas

ingurunearen kutsadura eta itsasoko seinaleak; Industria, Energia eta Turismo Ministerioari energia-segurtasun eta -hornidura kontuei buruzko txostena eskatuko zaio, eta Defentsa Ministerioari defentsa eta segurtasun nazionalari buruzkoa.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Gaztela-Mantxako parke nazionaletarako araubide iragankorra.*

Autonomia-erkidegoak Cabañerosko eta Tablas de Damieleko parke nazionalen kudeaketa bere gain hartu arte, gunehoriei lehendik aplikatzen zitzaien araudi bera aplikatuko zaie.

Bigarren xedapen iragankorra. *Parke nazional deklaraturakoetan Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onestea.*

Parke nazional deklaraturakoek Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planik ez badute, eskudun administrazioek hiru urteko epean onetsi beharko dituzte halako planak, lege hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Araudia indargabetzea.*

Indargabetuta geratzen da Parke Nazionalen Sareari buruzko 5/2007 Legea, apirilaren 3koa, bai eta lege honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Guadarrama Mendileroko Parke Nazionala Deklaratzeko ekainaren 25eko 7/2013 Legea aldatzea.*

1. Ondoko lerrokada hau gehitzen zaio Guadarrama Mendileroko Parke Nazionala deklaratzeko ekainaren 25eko 7/2013 Legearen 8. artikuluko 3. paragrafoaren amaierari:

«Estatuko Administrazio Orokorrek esku hartu baino lehen, autonomia-erkidegoari edo autonomia-erkidegoei errekerimendu formala egingo zaie, sei hilabeteko epean aurreko lerrokadan aipatzen diren neurriak hartzeko edo ekintzak bultzatzeko.»

2. Aldatu egiten da ekainaren 25eko 7/2013 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Guadarrama Mendileroko Parke Nazionalaren kokapen geografiko bereziaren ondorioz, eta parke nazional guztietarako xedaturakoaren salbuespen gisa, esanbidezko baimenik gabe edo ezinbestek eragin gabe 3.000 metrotik behera hegan egiteko debeku orokorra 500 metrora murrizten da, aireontzi komertzialen eta Estatuko aireontzien kasuan.

Motorrik gabe dabilzan aireontzien kasuan, Guadarrama Mendileroko Parke Nazionalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean aztertuko da zein kota, aldia eta eremuetan den jarduera hori parkearen baliabideen kontserbazioarekin bateragarria.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Monfragüeko Parke Nazionala Deklaratzeko martxoaren 2ko 1/2007 Legea aldatzea.*

1. Ezabatu egiten da Monfragüeko Parke Nazionala Deklaratzeko martxoaren 2ko 1/2007 Legearen 3. artikuluko 3. paragrafo d) hizkia.

2. Martxoaren 2ko 1/2007 Legearen 3. artikuluari 8. paragrafo berria gehitzen zaio. Honako hau dio:

«Parkea kudeatzen duen administrazioak nabigazio-jarduerak antolatu ahalko ditu parkearen barruko uretan, parke nazionalaren balio naturalak hedatzeko, balio horiekin erabat bateragarria den kopuruan eta moduan.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Konstituzioaren 149.1.23 artikulua babesean emana da (artikulu horrek ingurumena babesteko arloan oinarritzko legedia onartzeko eskumena aitortzen dio Estatuari) eta oinarritzko izaera du, hurrengo paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Halaber, oinarritzko izaera du, 32. artikulua, plangintza ekonomikoaren oinarri eta koordinazio kontuetan Estatuari eskumena ematen dion Konstituzioko 149.1.13 artikulua araberan.

Bestalde, 13. artikuluan jasotzen den larrialdi-egoera deklaratzeko Konstituzioaren 149.1.29 artikulua Estuari eskusiboki esleitzen dion segurtasun publikoko kontuen eskumenean kokatzen da.

Azken xedapenetako laugarrena. *Erregelamenduz garatzeko gaikuntza.*

1. Gobernuari gaikuntza ematen zaio lege honetan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan bere eskumenean eremuan.

2. Gobernuari gaikuntza ematen zaio parke nazional guztietako edo batzuetako lurraldean lursailaren gaitetik hegaz egiteko muga aldatzeko, 7. artikuluko 3. zenbakiko eta hizkian xedatutakoa, aire-segurtasuna dela kausa edo Europako araudia aplikatzean hala badagokio; nolana ere, aurrez, eraginpeko autonomia-erkidegoei kontsulta egin beharko die.

Erregelamenduz, Defentsa Ministerioaren eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren baterako ekimenez, salbuespenak ezarriko zaizkio Parke Nazionalerako ezarritakoa baino beherago hegaz egiteko debekuari, defentsa eta segurtasun nazionala direla kausa.

3. Gobernuak, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, Sarearen irudi korporatiboa eta nortasun grafikoa ezarriko ditu, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Indarrean sartzeko.*

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet espainiar guztiei, norbanako nahiz agintari.

Madrilen, 2014ko abenduaren 3an.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

ERANSKINA

Espainiako sistema naturalak

1. Parke Nazionalen Sarean ordezkatu beharreko lehorreko sistema natural espainiarrak.

- Basoaz gaindiko sastrakak, goi-mendietako larreak, zurezko goi-estepak, legar-hobiak.
- Mendigune Iberikoko eta mendikate alpinoetako erliebe-eraketa eta elementu geologiko apartekoak.
- Mendiko eta goi-mendiko eraketa eta erliebe apartekoak.
- Jatorri glaziarra eta periglaziarra duten sistema natural apartekoak.
- Jatorri karstikoa duten sistema natural apartekoak.
- Estai muinotar edo menditarreko baso misto atlantikoak.
- Harizti, pagadi eta urkidiak.
- Erkameztiak eta ameztiak.
- Artadi, garriga-basoak, artelatz-basoak eta basolibondo-basoak.
- Izeidiak eta espainiar izeien basoak.
- Pinudiak, sabina-basoak ipuru-basoak.
- Garriga xerofilo mediterraneoak.
- Estrepadi mediterraneoak, espartzudiak eta albardinadiak.
- Kontinenteko eta itsasoko arro tertziarioei lotutako sistemak eta eraketak.
- Kostaldeko eta barnealdeko basamortu-eremuak.
- Laurisilva-basoak.
- Kanarietako pagadi-txilardidun mendi berdea.
- Tabaiba-astalarrak eta beste eraketa termomakaronesiar batzuk.
- Ur-lasterrek eta ur-bazterreko basoak.
- Egiturazko erliebeen gaineko ibai-arroilak.
- Ibai- eta haize-jatorriko modelatu apartekoa duten metakin eta formak.
- Kostaldeak, itsaslabarrak, dunak eta itsasertzeko metakinak.
- Goi-mendiko hezegune eta urmaelak.
- Urmael halofiloak, gatz-lautadak eta igeltsu-harrobiak.
- Ur gozoko urmaelak, lezkadiak, lezka hostozabalak eta ihidiak, behin-behineko istiltzea duten txankal-belardiak.
- Kostaldeko hezeguneak eta itsasertzeko padurak.
- Jatorri bolkanikodun sistema natural bereziak.

2. Parke Nazionalen Sarean ordezkatu beharreko itsasoko sistema natural espainiarrak.

- Itsaspeko gas-jarioei lotutako sistemak.
- Hondo detritikoak eta sedimentarioak.
- Sakoneko koral-bankuak.
- Maëri-hondoak.
- Koral-komunitateak.
- Itsas fanerogamoen zelaiak.
- Paseko eremu pelagogikoak, zetazeo edo arrain handi migratzaileen ugalketa edo ohiko presentzia.
- Itsaspeko mendi handi, leize, tunel eta arroilak.
- Iragazle handien komunitate bereziak: belakiak, aszidiak eta briozooak.
- Alga fotofilo edo laminarioen komunitateak.
- Fotofilo eta esziafiloen alga-multzoen populaziodun substratu gogorreko komunitateak.
- Aldapa handiko malkar eta bazterrak.
- Behe harritsuak.